# EUSKARAZKO ARGITALPENEI BURUZKO XI. TXOSTENA

# (2015)

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

## EDUKIEN AURKIBIDEA


**SARRERA ........................................................................................ 6**

**Metodologia ....................................................................................... 7**

ARLOA..............................................................................................7

INFORMAZIOAREN BILKETA ......................................................................7

ESKURATUTAKO INFORMAZIOAREN AURKEZPENA ..........................................7

AZALPENAK........................................................................................8

AZTERKETAREN FITXA TEKNIKOA ................................................................9

**ARGITALPEN SEKTOREA, ORO HAR ........................................................ 10**

**ARGITALPEN PRIBATUA EUSKARAZ ....................................................... 12**

ARGITALPEN PRODUKZIOA ......................................................................12

Euskarazko argitalpenak guztizkoarekin alderatuta.....................................15

Argitalpen produkzioa, sailen arabera ......................................................16

Euskaraz argitaratutako izenburuak, sailen arabera....................................17

Euskaraz argitaratutako aleak, sailen arabera...........................................21

Batez besteko argitaraldia euskaraz, sailen arabera....................................25

KATALOGOKO IZENBURUAK .....................................................................27

Katalogoko izenburuak, sailen arabera......................................................27

**MERKATURATZEA.................................................................................. 31**

2015EKO FAKTURAZIOA ..........................................................................31

Fakturazioaren zenbatekoa, sailen arabera...............................................31

Fakturazioa sailez sail jatorriaren arabera .................................................33

LIBURUAK MERKATURATZEKO BIDEAK ......................................................36

Batez besteko salneurriak eta saldutako aleak ...........................................40

**Unibertsitatekoak ez diren Testuak, Euskaraz ........................................ 42**

ENPLEGUA .........................................................................................51

EGILE ESKUBIDEAK ..............................................................................52

**ARGITALPEN PUBLIKOA EUSKARAZ ....................................................... 53**

**LABURPENA ........................................................................................ 55**

SAILEN ARABERAKO BANAKETARI BURUZ AIPATU BEHARREKO ALDERDIAK .....58

ZEHAZTAPEN METODOLOGIKOAK ..............................................................61

## TAULEN AURKIBIDEA


1. TAULA.- UNIBERTSOA ETA LAGINA ..... 9
2. TAULA.- EUSKARAZ ARGITARATU ZUTEN ARGITALETXEAK ..... 10
3. TAULA.- 2015KO EUSKARAZKO ARGITALPENARI BURUZKO DATU OROKORRAK ..... 11
4. TAULA.- EUSKARAZKO ARGITALPENARI BURUZKO DATU OROKORRAK ..... 12
5. TAULA.- ARGITARATUTAKO ALEEN, ARGITARATUTAKO IZENBURUEN ETA BATEZ BESTEKO ARGITARALDIAREN BILAKAERA (2011-2015). 2014. URTEAREKIKO ALDAKUNTZA ..... 13
6. TAULA.- EUSKARAZ ARGITARATUTAKO IZENBURUAK ..... 14
7. TAULA.- ARGITALETXE KOPURUA, EUSKARAZ ARGITARATUTAKO IZENBURUEN EHUNEKOAREN ARABERA, GUZTIZKOAREKIN ALDERATUTA. IPAR EUSKAL HERRIA KONTUAN HARTU GABE. ..... 15
8. TAULA.- EUSKARAZKO IZENBURUEN ARGITALPENA, SAILEN ARABERA, 2015AN. ARGITALETXE PRIBATUAK ..... 17
9. TAULA. IZENBURUAK, SAILEN ARABERA. 2011-2015 BILAKAERA. 2014. URTEAREKIKO ALDAKUNTZA ..... 20
10. TAULA.- 2015AN EUSKARAZ EKOITZITAKO ALEAK, SAILEN ARABERA (MILAKOTAN). ARGITALETXE PRIBATUAK ..... 21
11. TAULA.- ALEAK, SAILEN ARABERA. 2011-2015 BILAKAERA. 2014. URTEAREKIKO ALDAKUNTZA ..... 24
12. TAULA.- BATEZ BESTEKO ARGITARALDIA EUSKARAZ, SAILEN ARABERA, 2015AN. ARGITALETXE PRIBATUAK ..... 25
13. TAULA.- BATEZ BESTEKO ARGITARALDIA, SAILEN ARABERA. BILAKAERA. 2014. URTEAREKIKO ALDAKUNTZA ..... 26
14. TAULA.- KATALOGOKO IZENBURUAK EUSKARAZ, 2015AN. ARGITALETXE PRIBATUAK ..... 27
15. TAULA.- KATALOGOKO EUSKARAZKO IZENBURUAK, SAILEN ARABERA, 2015AN. ARGITALETXE PRIBATUAK ..... 28
16. TAULA. IZENBURU BIZIAK, SAILEN ARABERA. 2011-2015 BILAKAERA. 2014. URTEAREKIKO ..... 30
17. TAULA.- EUSKARAZKO FAKTURAZIOA 2015AN. ARGITALETXE PRIBATUAK ..... 31
18. TAULA.- EUSKARAZKO FAKTURAZIOA 2015AN, SAILEN ARABERA. ARGITALETXE PRIBATUAK ..... 31
19. TAULA.- FAKTURAZIOA, SAILEN ARABERA. 2011-2015 BILAKAERA. 2014. URTEAREKIKO ALDAKUNTZA ..... 34
20. TAULA.- EUSKARAZKO FAKTURAZIOA 2015AN, MERKATURATZE BIDEEN ARABERA. ARGITALETXE PRIBATUAK ..... 36
21. TAULA.- FAKTURAZIOA, MERKATURATZE BIDEEN ARABERA. 2011-2015 BILAKAERA. 2014 ..... 38
22. TAULA.- SALDUTAKO ALEAK. 2011-2015 BILAKAERA. 2014. URTEAREKIKO ALDAKUNTZA ..... 40
23. TAULA.- ARGITARATUTAKO ALEEN, SALDUTAKO ALEEN ETA FAKTURAZIOAREN ARTEKO ..... 40
24. TAULA.- EAE, NFE, IPAR EH ETA BESTE AUTONOMIA ERKIDEGO BATZUEN PARTE HARTZEA, HAINBAT MAGNITUDETAN ..... 41
25. TAULA.- 2015AN ARGITARATUTAKO UNIBERTSITATEKOAK EZ DIREN TESTUEN EUSKARAZKO IZENBURUAK ..... 42

26. TAULA.- UNIBERTSITATEKOAK EZ DIREN TESTUEN EUSKARAZKO IZENBURUAK. 2011-2015 BILAKAERA. 2014. URTEAREKIKO ALDAKUNTZA ..... 42
27. TAULA.- 2015AN ARGITARATUTAKO UNIBERTSITATEKOAK EZ DIREN TESTUEN EUSKARAZKO ALEAK (MILAKOTAN) ..... 43
28. TAULA.- UNIBERTSITATEKOAK EZ DIREN EUSKARAZKO ALEAK (X 1.000). 2011-2015 BILAKAERA. 2014. URTEAREKIKO ALDAKUNTZA ..... 44
29. TAULA.- UNIBERTSITATEKOAK EZ DIREN TESTUEN EUSKARAZKO BATEZ BESTEKO ARGITARALDIA 2015AN ..... 45
30. TAULA.- UNIBERTSITATEKOAK EZ DIREN TESTUEN BATEZ BESTEKO ARGITARALDIA. 2011-2015 BILAKAERA. ALDAKUNTZA 2014ARI DAGOKIONEZ ..... 45
31. TAULA.- UNIBERTSITATEKOAK EZ DIREN TESTUEN EUSKARAZKO IZENBURU BIZIAK 2015AN ..... 46
32. TAULA.- UNIBERTSITATEKOAK EZ DIREN TESTUEN EUSKARAZKO IZENBURU BIZIAK 2011-2015 BILAKAERA. 2014. URTEAREKIKO ALDAKUNTZA ..... 47
33. TAULA.- UNIBERTSITATEKOAK EZ DIREN TESTUEN EUSKARAZKO FAKTURAZIOA 2015AN ..... 48
34. TAULA.- UNIBERTSITATEKOAK EZ DIREN EUSKARAZKO TESTUEN FAKTURAZIOA. 2011-2015 BILAKAERA. 2014. URTEAREKIKO ALDAKUNTZA ..... 49
35. TAULA. NOMINAPEKO LANGILEEN KOPURUA. ENPRESA PRIBATUAK ..... 51
36. TAULA.- ESKUBIDEAK EROSTEKO EGINDAKO ORDAINKETEN ESTIMAZIOA ..... 52
37. TAULA.- ERAKUNDE PUBLIKOEN ARGITALPENEN BALIOEN BANAKETA, SAILEN ARABERA ..... 54
38. TAULA.- LORTUTAKO BALIOEN BANAKETA, ARGITALETXEEN TIPOLOGIAREN ARABERA. BALIO ABSOLUTUAK ..... 55
39. TAULA.- LORTUTAKO BALIOEN BANAKETA, ARGITALETXEEN TIPOLOGIAREN ARABERA. % BERTIKALAK ..... 55
40. TAULA.- EUSKARAZKO ARGITALPENAREN RATIO NAGUSIAK, ARGITALETXEEN TIPOLOGIAREN ARABERA. ..... 56
41. TAULA.- EUSKARAZKO LIBURUEN ARGITALPENAREN ETA FAKTURAZIOAREN DATU NAGUSIAK, SAILEN ARABERA. ARGITALETXE PRIBATUAK ..... 57
42. TAULA.- EUSKARAZ ARGITARATUTAKO IZENBURUEN ETA KATALANEZ, GALIZIERAZ, GAZTELANIAZ ETA ESPAINIAN ARGITARATUTAKO IZENBURUEN DATUEN ARTEKO KONPARAZIOA, SAILEN ARABERA (ARGITALETXE PRIBATUAK)[8] ..... 58
43. TAULA.- EUSKARAZ ARGITARATUTAKO ALEEN ETA KATALANEZ, GALIZIERAZ, GAZTELANIAZ ETA ESPAINIAN ARGITARATUTAKO ALEEN DATUEN ARTEKO KONPARAZIOA, SAILEN ARABERA (ARGITALETXE PRIBATUAK) ..... 59
44. TAULA.- EUSKARAZKO ARGITALPEN BIZIEN ETA KATALANEZ, GALIZIERAZ, GAZTELANIAZ ETA ESPAINIAN ARGITARATUTAKOEN DATUEN ARTEKO KONPARAZIOA, SAILEN ARABERA (ARGITALETXE PRIBATUAK) ..... 59
45. TAULA.- COMPARACIÓN DE LA FACTURACIÓN POR MATERIAS EN EUSKARA CON LOS DATOS OBTENIDOS EN CATALÁN, GALLEGO, CASTELLANO Y EN ESPAÑA Y FRANCIA (ARGITALETXE PRIBATUAK) ..... 60
46. TAULA.- HAUR ETA GAZTE LITERATURA ETA UNIBERTSITATEKOAK EZ DIREN TESTUAK SAILEN EHUNEKOAK, HAINBAT HIZKUNTZATAN, AZTERTUTAKO MAGNITUDEEN ARABERA (ARGITALETXE PRIBATUAK) ..... 60

## GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. GRAFIKOA.- ARGITALETXEEN TIPOLOGIA ..... 10
2. GRAFIKOA.- ARGITALETXEEN EHUNEKOA, GUZTIZKOAREKIN ALDERATUTA EUSKARAZ ARGITARATUTAKO LANEN ARABERA ..... 15
3. GRAFIKOA.- SAIL BAKOITZEKO EUSKARAZKO IZENBURUEN BANAKETA, ARGITALETXE PRIBATUETAN, JATORRIAREN ARABERA (%-TAN) ..... 19
4. GRAFIKOA.- SAIL BAKOITZEAN EUSKARAZ ARGITARATUTAKO ALEAK, ARGITALETXE PRIBATUETAN, JATORRIAREN ARABERA (%-TAN) ..... 23
5. GRAFIKOA.- KATALOGOKO EUSKARAZKO IZENBURUEN BANAKETA SAILEN ARABERA, ARGITALETXE PRIBATUETAN. JATORRIAREN ARABERA (%-TAN) ..... 29
6. GRAFIKOA.- EUSKARAZKO FAKTURAZIOAREN BANAKETA, SAILEN ARABERA, ARGITALETXE PRIBATUETAN (%-TAN) ..... 33
7. GRAFIKOA.- EUSKARAZKO FAKTURAZIOAREN BILAKAERA. GUZTIRA ETA SAILEN ARABERA (2011-2015) ..... 35
8. GRAFIKOA.- EUSKARAZKO FAKTURAZIOAREN BANAKETA, MERKATURATZE BIDEEN ARABERA, ARGITALETXE PRIBATUETAN (%-TAN) ..... 37
9. GRAFIKOA.- EUSKARAZKO FAKTURAZIOAREN BILAKAERA. GUZTIRA ETA MERKATURATZE BIDEEN ARABERA (2011-2015) ..... 39
10. GRAFIKOA.- UNIBERTSITATEKOAK EZ DIREN EUSKARAZKO TESTUEN FAKTURAZIOAREN BILAKAERA. OSOA ETA SAILEN ARABERA (2011-2015) ..... 50
11. GRAFIKOA.- LORTUTAKO BALIOAK, ARGITALETXEEN TIPOLOGIAREN ARABERA. (% BERTIKALAK) ..... 56
12. GRAFIKOA.- HAUR ETA GAZTE LITERATURA ETA UNIBERTSITATEKOAK EZ DIREN TESTUAK SAILEN ARGITALPENA ETA FAKTURAZIOA, AZTERTUTAKO HIZKUNTZETAN (%-TAN) ..... 60

# SARRERA

Euskarazko argitalpenei buruzko hamargarren txostena, 2015. urteari dagokiona, egin du Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak. Txosten hori Euskadiko Editoreen Elkartearen laguntzarekin egin da.

Txosten hau prestatzeko azterketak euskarazko liburuen produkzioari, eskaintzari eta fakturazioari buruzko datu guztiak jasotzen ditu, liburu horiek argitara eman diren lekuak edozein direla ere. Hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko, Nafarroako Foru Erkidegoko eta Frantziako estatuko (Ipar Euskal Herriko) produkzioak biltzen ditu. Horrez gainera, badira hainbat argitaletxe egoitza lurralde horietatik kanpo duten arren euskarazko lanak argitaratzen dituztenak, eta horiek ere kontuan hartzen ditu.

Bestalde, euskarazko argitalpenak plazaratzen dituzten Administrazio Publikoko erakundeen eta haren mendeko entitateen datuak ere jasoak datoz azterketan.

# METODOLOGIA

### ARLOA

Ikerketa honen azterketa eremua euskarazko liburuen argitalpena da, eta honako enpresa edo erakunde mota hauek hartu ditugu kontuan:

- Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) argitaletxe pribatuak. Elkarteen eta fundazioen argitalpen zerbitzuak ere sartu ditugu kategoria honen barruan.
- Nafarroako Foru Erkidegoko (NFE) argitaletxe pribatuak.
- Ipar Euskal Herriko argitaletxeak (Ipar EH).
- Beste autonomia erkidego batzuetako argitaletxeak (Beste AE batzuk).
- Erakunde publikoak (EP).

Horiek guztiak 2015. urtean argitalpenaren eremuko barne merkatuan jardun zuten argitaletxeak, enpresak edo erakundeak dira.

## INFORMAZIOAREN BILKETA

Azterlanean islatuta dagoen informazioa zenbait iturritatik jaso dugu:

- Euskadiko enpresa pribatuak. Horiei buruzko informazioa 2015ko Euskal Autonomia Erkidegoko Edizioaren XXI. txostenean bilduta dago jadanik.
- Euskal Herritik kanpoko argitalpen enpresa pribatuek betetako galdetegi egituratu bat, posta elektronikoz igorria.
- Erakunde publikoei buruzko informazioa eta euskarazko argitalpenei buruzko beste zifra batzuk jaso dira telefono bidezko inkesten eta ISBN datu-basearen bidez.

## ESKURATUTAKO INFORMAZIOAREN AURKEZPENA

Txosten honetan, hasteko, euskarazko argitalpenei buruzko datu orokorrak emango ditugu jakitera: eragile editoreei eta argitaratutako izenburuei buruzkoak. Ondoren, argitalpen pribatuari buruzko datuak zehatz-mehatz aztertuko ditugu (Euskadi, Nafarroa, Ipar Euskal Herria eta gainerako autonomia erkidegoak kontuan hartuta). Euskal Autonomia Erkidegoari buruzko informazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Liburuaren Barne Merkataritzari buruzko txostenean dago jasota, baina informazio horri erantsi dizkiogu Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko datuak eta euskarazko lanak argitaratzen dituzten gainerako autonomia erkidegoetako argitaletxe pribatuenak.

Ondoren, erakunde publikoen argitalpenei buruzko informazioa eskainiko dugu. Dena dela, kontuan hartu behar da Euskal Autonomia Erkidegoko Barne Merkataritzaren urteko txostenaren barruan Euskal Herriko unibertsitate publikoak ere sartzen direla, eta, beraz, horiei buruzko datuak ez direla argitalpen publikoari buruzko atalean sartuko, argitalpen pribatuaren atalean baizik.

## AZALPENAK

Azterketan, euskaraz argitaratutako lanei buruzko galderak egin ditugu.

Azterketa honen emaitzetan agertzen diren argitaratutako lanen kopuruaren eta ISBNan (ISBN datu-basea edo Liburuen Espainiar Argitalpenaren Panoramika) 2015an erregistratutako liburuen kopuruaren artean dauden aldeak erraz azal daitezke, gure iritziz: berrargitaratutako lanak dira, editoreak berak argitaratuak, baina aldaketarik izan ez dutenak eta horientzat, zenbait kasutan, ez da ISBN zenbaki berririk eskatu.

## AZTERKETAREN FITXA TEKNIKOA

**Lanaren egilea:** CONECTA Research & Consulting.

**Unibertsoa:** ISBNko datuen arabera, 2015. urtean 90 argitaletxek argitaratu zituzten lanak euskaraz. Ipar Euskal Herriko 6 argitaletxe gehitu behar zaizkie horiei.

**Laginaren tamaina:** EAEko 29 argitaletxe pribatuk erantzun diote galdeketari, hau da, laginaren % 67,4k. Gainerako autonomia erkidegoetatik lortutako erantzunari dagokionez, argitaletxeen % 36,4k erantzun dio galdeketari, eta horien barnean daude euskarazko izenburu gehien dituztenak. Horien garrantzia kontuan hartuta, erantzun maila talde horren euskarazko fakturazioaren erakusgarria dela iruditzen zaigu.

Guztira, argitaletxe pribatuen % 60,0k eta erakunde publikoen % 28,6k erantzun dute. Galdeketari erantzun ez dioten argitaletxeei buruzko informazioa bigarren mailako iturrietatik jaso dugu.

**1. TAULA.- UNIBERTSOA ETA LAGINA**

| | Unibertsoa | Lagina | Laginaren % |
|---|---|---|---|
| EAE | 43 | 29 | 67,4 |
| NFE | 4 | 2 | 50,0 |
| Ipar EH | 6 | 6 | 100,0 |
| Beste AE batzuk | 22 | 8 | 36,4 |
| **Argitaletxe pribatuak, guztira** | **75** | **45** | **60,0** |
| **EP** | **21** | **6** | **28,6** |
| **Guztira** | **96** | **51** | **53,1** |

**Galdeketa mota:** egituratua.

**Aplikazioa:** norberak betea.

**Landa lanerako datak:** 2016ko uztailetik irailera bitarte bildu ziren beste autonomia erkidego batzuetako argitaletxe pribatuen, argitaletxe publikoen eta Ipar Euskal Herriko argitaletxeen datuak. Euskadiko argitaletxe pribatuei buruzko datuak, berriz, 2016ko otsailaren 23tik irailaren 15era bitartean bildu genituen.

**Datuak taulan jartzea:** datuak Conecta Research & Consulting enpresan grabatu dira, eta taulan jarri.

## ARGITALPEN SEKTOREA, ORO HAR

Espainian eta Frantzian, 96 enpresak argitaratu dute lanen bat euskaraz 2015. urtean. Enpresa horiek honela banatuta daude, duten tipologiaren eta kokaleku geografikoaren arabera:

- Egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan[1] (EAE) duten 43 argitaletxe pribatu (Euskadiko Barne Merkataritzari buruzko ikerketaren bitartez aztertu direnak). Talde horretan sartzen dira Euskadiko Editoreen Elkartean bildutako argitaletxeak nahiz, horren barruan egon ez arren, 2015. urtean argitalpen sektorean jardun zuten erkidego horretako argitaletxeak.
- Nafarroako Foru Erkidegoko (NFE) 4 argitaletxe pribatu.
- Ipar Euskal Herriko probintzietako (Frantzia) 6 argitaletxe pribatu.
- Egoitza nagusia beste autonomia erkidego batean duten 22 argitaletxe pribatu.
- Argitalpen zerbitzua duten 21 erakunde publiko (EP). Horiek izendatzeko argitaletxe eragile hitza erabiltzea komeni da, oro har, erakunde horien jarduera nagusia ez baita argitalpena.

### 1. GRAFIKOA.- ARGITALETXEEN TIPOLOGIA




### 2. TAULA.- EUSKARAZ ARGITARATU ZUTEN ARGITALETXEAK

| | Argitaletxe pribatuak | | | | | EP | % bertikalak, guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Guztira | EAE | NFE | Ipar EH | Beste AE batzuk | | |
| EAE | 61 | 43 | -- | -- | -- | 18 | 63,6 |
| NFE | 6 | 2 | 2 | -- | -- | 2 | 6,3 |
| Ipar EH | 6 | -- | -- | 6 | -- | -- | 6,3 |
| Kataluniako AE | 4 | -- | -- | -- | 4 | -- | 4,2 |
| Madrilgo AE | 10 | -- | -- | -- | 9 | 1 | 10,4 |
| Beste AE batzuk | 9 | -- | -- | -- | 9 | -- | 9,4 |
| **Guztira** | **96** | 45 | 2 | 6 | 22 | 21 | 100,0 |
| % horizontalak | 100,0 | 46,9 | 2,1 | 6,3 | 22,9 | 21,9 | |

[1] Nafarroan bi dira Euskadiko Editoreen Elkartera bildutako argitaletxeak, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Edizioaren txostenean daude jasota haien datuak. Era berean, hezkuntza erakunde publiko baten datuak daude jasota hartan.

Hurrengo taulan, zehatzago agertzen dira euskaraz argitaratzen duten mota bakoitzeko argitaletxeak. Halaber, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo izenburu kopuru gehiena dutenak. Egileen eta editoreen datuak ere agertzen dira, informazio gisa (ez zaizkio emaitza osoari gehitu).

**3. TAULA.- 2015KO EUSKARAZKO ARGITALPENARI BURUZKO DATU OROKORRAK**

| Editore mota | Probintzia | Eragileak | Izenburuak, guztira | Izenburu gehien dituzten argitaletxeak |
|---|---|---|---|---|
| **Guztira** | | **132** | **1.779** | |
| **Egileak/editoreak, guztira** | | **36** | **44** | |
| | **Gipuzkoa** | 19 | 26 | |
| | **Bizkaia** | 10 | 10 | |
| | **Nafarroa** | 7 | 8 | |
| **Pribatua, guztira** | | **69** | **1.584** | |
| **EAE**[2] | | **43** | **1.185** | |
| **Argitaletxe pribatua** | **Araba** | 4 | 30 | |
| | **Gipuzkoa** | 19 | 410 | |
| | **Bizkaia** | 20 | 744 | |
| | **Nafarroa** | **4** | **69** | **Pamiela** |
| | | | | **Txalaparta Argitaletxea** |
| | | | | **Igela Argitaletxea** |
| | | | | **Cenlit** |
| | **Bartzelona** | **4** | **25** | **Planeta** |
| | | | | **Vicens Vives** |
| | **Madril** | **9** | **266** | **Anaya** |
| | | | | **Susaeta** |
| | | | | **Bruño** |
| | **Pontevedra** | **1** | **7** | |
| | **Badajoz** | **1** | **9** | |
| | **Valentzia** | **4** | **11** | |
| | **Beste batzuk** | **3** | **12** | |
| **Publikoa, guztira** | | **21** | **122** | |
| **Hezkuntza erakunde publikoak** | | **2** | **41** | |
| | **Bizkaia** | 2 | 41 | **Euskal Herriko Unibertsitatea** |
| | | | | |
| **Estatuko autonomia eta tokiko administrazioaren erakunde ofizialak** | | **19** | **81** | |
| | **Araba** | 2 | 26 | **Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Eusko Jaurlaritzako** |
| | **Gipuzkoa** | 8 | 27 | |
| | **Bizkaia** | 6 | 25 | **Bizkaiko Foru Aldundia** |
| | **Nafarroa** | 2 | 2 | |
| | **Madril** | 1 | 1 | |
| **Ipar Euskal Herria** | | **6** | **29** | |

[2] EAEko argitaletxe pribatuen 1.185 izenburuei honako hauek gehitu egin behar zaizkie horien datuak EAEko edizioaren azterlanean daudelako: Nafarroako 2 argitaletxeren 50 izenburu eta Hezkuntza Publikoko 2 Erakunderen 41 izenburu. Horrenbestez batzen dira txosten honetan hemendik aurrera aipatuko ditugun EAEko **1.276 izenburuak**.

Nafarroak 69 ken 50 izenburu lituzke = **19 izenburu**.

Edizio Publikoaren guztizkoa 122 litzateke ken Hezkuntza Publikoko Erakundeen 41 = **81 izenburu**.

# ARGITALPEN PRIBATUA EUSKARAZ

## ARGITALPEN PRODUKZIOA

2015. urtean, Euskadiko, beste autonomia erkidego batzuetako eta Ipar Euskal Herriko argitaletxe pribatuek 1.654 izenburu[3] kaleratu dituzte euskaraz. Kopuru hori aurreko urtekoa baino % 7,5 txikiagoa da, eta 2013. urtekoa baino 4,3 txikiagoa. Argitaratutako izenburuen % 77,2 EAEko argitaletxe pribatuek eman dituzte argitara; % 1,1 Nafarroako Foru Erkidegokoek; % 1,7 Ipar Euskal Herrikoek, eta % 20,0 beste autonomia erkidego batzuetakoek.

2014. urteari dagokionean, Ipar Euskal Herrian eta Nafarroako Foru Erkidegoan[4] % 10,2 eta % 6,7 izenburu gehiago argitaratu dira, hurrenez hurren; EAEn eta beste autonomia erkidegoetan, berriz, kopuruak behera egin du, % 9,5 eta % 1,2, hurrenez hurren.

Argitaletxe horiek izenburu horien 2.759.193 ale argitaratu dituzte, guztira, 2015ean. 2014. urtean lortutakoa baino % 6,0 txikiagoa da kopuru hori, eta 2013koa baino % 2,2 txikiagoa. Ale horien % 88,9 EAEn argitaratu ziren.

2015ean, 1.669 alekoa izan zen batez besteko argitaraldia izenburuko, (2014an izandakoaren antzeko kopurua, izenburuko bakarrik 26 aleko aldearekin aurreko urtearekiko, eta 2013an baino 36 gehiago). Argitaratutako izenburuen kopuruak eta aleen kopuruak ia proportzio berean egin dute behera, eta horregatik mantendu da bere horretan batez besteko argitaraldia.

Ondoko tauletan, euskarazko argitalpenari buruzko datu orokorrak daude adierazita, eta baita argitaratutako izenburuek, argitaratutako aleek eta batez besteko argitaraldiak azken bost urteetan izandako bilakaera ere.

**4. TAULA.- EUSKARAZKO ARGITALPENARI BURUZKO DATU OROKORRAK**

| | Argitaratutako izenburuak | % | Argitaratutako aleak | % | Batez besteko argitaraldia |
|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira** | **1.654** | **100,0** | **2.759.193** | **100,0** | **1.669** |
| **EAE** | 1.276 | 77,2 | 2.453.250 | 88,9 | 1.923 |
| **NFE** | 19 | 1,1 | 13.000 | 0,5 | 684 |
| **Ipar EH** | 29 | 1,7 | 22.800 | 0,8 | 786 |
| **Beste AE batzuk** | 330 | 20,0 | 270.143 | 9,8 | 821 |

[3] Euskal Herriko Unibertsitatearenak eta Euskaltzaindiarenak barne.

[4] Nafarroako Foru Erkidegoan badira bi argitaletxe Euskal Editoreen Elkarteko kide direnak eta horregatik EAEren barnean sartzen dira haien datuak.

**5. TAULA.- ARGITARATUTAKO ALEEN, ARGITARATUTAKO IZENBURUEN ETA BATEZ BESTEKO ARGITARALDIAREN BILAKAERA (2011-2015). 2014. URTEAREKIKO ALDAKUNTZA**

| | Argitaratutako izenburuak | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | Aldakuntza (%) |
| **Guztira** | **1.895** | **1.854** | **1.728** | **1.787** | **1.654** | **-7,5** |
| **EAE** | 1.486 | 1.463 | 1.346 | 1.410 | **1.276** | -9,5 |
| **NFE** | 20 | 16 | 14 | 18 | **19** | 6,7 |
| **Ipar EH** | 27 | 26 | 27 | 27 | **29** | 6,8 |
| **Beste AE batzuk** | 362 | 349 | 341 | 333 | **330** | -0,9 |

| | Argitaratutako aleak (x 1.000) | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | Aldakuntza (%) |
| **Guztira** | **3.351** | **3.272** | **2.821** | **2.937** | **2.760** | **-6,0** |
| **EAE** | 3.046 | 2.969 | 2.546 | 2.662 | **2.453** | -7,8 |
| **NFE** | 11 | 10 | 11 | 12 | **13** | 5,6 |
| **Ipar EH** | 30 | 27 | 28 | 28 | **23** | -17,1 |
| **Beste AE batzuk** | 265 | 266 | 236 | 235 | **271** | 14,7 |

| | Batez besteko argitaraldia | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | Aldakuntza* |
| **Guztira** | **1.769** | **1.764** | **1.633** | **1.643** | **1.669** | **26** |
| **EAE** | 2.050 | 2.028 | 1.892 | 1.888 | **1.923** | 35 |
| **NFE** | 556 | 637 | 781 | 691 | **684** | -7 |
| **Ipar EH** | 1.107 | 1.051 | 1.038 | 1.019 | **786** | -233 |
| **Beste AE batzuk** | 732 | 761 | 691 | 707 | **821** | 114 |

*Ale kopurutan

## Euskaraz argitaratutako izenburuen kopuru tarteak

2015ean euskaraz argitaratu duten argitaletxe guztien (70 argitaletxe) % 72,2k 1-9 izenburu argitaratu dituzte euskaraz. Argitaletxeen % 32,0k izenburu bakarra argitaratu dute euskaraz; % 27,8k, 2-4 izenburu euskaraz; % 12,4k, 5-9 izenburu euskaraz, eta % 27,8k, 10 izenburu edo gehiago.

**6. TAULA.- EUSKARAZ ARGITARATUTAKO IZENBURUAK**

| | Guztira (%) | Guztira: Argitaletxe kop. | Argitaletxe pribatuak | | | | Argitaletxe publikoak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | EAE[5] | NFE | Ipar EH | Beste AE batzuk | |
| **Guztira** | **100,0** | **97** | **44** | **4** | **6** | **22** | **21** |
| 1 izenburu | **32,0** | **31** | 9 | -- | -- | 10 | 12 |
| 2-4 izenburu | **27,8** | **27** | 18 | 1 | -- | 4 | 4 |
| 5-9 izenburu | **12,4** | **12** | 4 | -- | -- | 5 | 3 |
| 10-49 izenburu | **18,6** | **18** | 6 | 3 | 6 | 1 | 2 |
| 50 izenburu edo gehiago | **9,3** | **9** | 7 | -- | -- | 2 | -- |

[5] Gogoratu EAEren barruan hezkuntza publikoaren arloko erakunde bat dagoela.

## Euskarazko argitalpenak guztizkoarekin alderatuta

Argitaletxe pribatu guztien (90, Ipar Euskal Herrikoak kenduta) % 20,0k euskaraz argitaratzen dituzte beren izenburuen % 75 baino gehiago; hain zuzen ere, 20 argitaletxek. Horietatik 19 EAEkoak dira, eta bakar bat, NFEkoa.

Argitaletxe pribatu horietatik 3k (2 EAEkoak) euskaraz argitaratzen dituzte lanen % 50 eta % 75 artean. 9 enpresak lanen % 25 eta % 49 bitarte argitaratzen dute euskaraz (8 EAEkoak). 38 argitaletxe pribatuk, berriz, lanen % 25 baino gutxiago ekoizten dituzte euskaraz (15 EAEkoak eta 22 beste autonomia erkidego batzuetakoak).

Azterlanean jasotako 21 erakunde publikoei dagokienez, 10ek euskaraz argitaratzen dituzte beren izenburuen % 75 baino gehiago.

**7. TAULA.- ARGITALETXE KOPURUA, EUSKARAZ ARGITARATUTAKO IZENBURUEN EHUNEKOAREN ARABERA, GUZTIZKOAREKIN ALDERATUTA. IPAR EUSKAL HERRIA KONTUAN HARTU GABE.**

| Argitaletxe kopurua | Guztira (%) | Guztizko orokorra | Argitaletxe pribatuak* | | | | EP |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | Pribatuak, guztira | EAE | NFE | Beste AE batzuk | |
| **Guztira** | **100,0** | **91** | **70** | **44** | **4** | **22** | **21** |
| % 25 baino gutxiago | **45,1** | **41** | **38** | 15 | 1 | 22 | 3 |
| % 25 - % 49 | **13,2** | **12** | **9** | 8 | 1 | -- | 3 |
| % 50 - % 75 | **8,8** | **8** | **3** | 2 | 1 | -- | 5 |
| % 75 baino gehiago | **33,0** | **30** | **20** | 19 | 1 | -- | 10 |

** Ipar Euskal Herria kontuan hartu gabe*

**2. GRAFIKOA.- ARGITALETXEEN EHUNEKOA, GUZTIZKOAREKIN ALDERATUTA EUSKARAZ ARGITARATUTAKO LANEN ARABERA**



## Argitalpen produkzioa, sailen arabera

Atal honetan, euskarazko argitalpen produkzioari buruzko datuak emango ditugu (argitaratutako izenburuak, argitaratutako aleak, batez besteko argitaraldia eta katalogoko izenburu biziak), sailen arabera. Honako hauek dira sail bakoitzaren edukiak:

- *Literatura:* eleberria, poesia eta antzerkia, beste literatura batzuk.
- *Haur eta gazte literatura*: haurrentzako eta gazteentzako literatura eta argitalpenak.
- *Unibertsitatekoak ez diren testuak:* epigrafe honetan sartzen dira Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH), Batxilergoko eta Lanbide Heziketako (LH) testuak eta Liburuak nahiz material osagarriak..
- *Testu zientifiko teknikoak eta unibertsitate testuak*: zientzia hutsak, medikuntza, teknika eta zientzia aplikatuak, enpresa ekonomia. Sakontasun eta zorroztasun mailaren arabera, eta norentzat egina den kontuan hartuta: unibertsitateko ikasleak, teknikari adituak eta antzekoak.
- *Giza eta gizarte zientziei buruzko testuak*: hainbat diziplina biltzen ditu, soziologia, ekonomia, zuzenbidea, psikologia, erlijioa eta geografia eta historia, besteak beste.
- *Liburu praktikoak*: etxeko ekonomiari buruzko liburuak, sukaldaritzari buruzkoak, bidaia gidak, mapak, etab.
- *Dibulgazioa orokorra*: sail honetan sartzen dira Dibulgazioko beste liburu batzuk saileko lanak (arte ederrak, musika, kirolak, etab.).
- *Hiztegiak eta entziklopediak*: ale bakarreko edo bat baino gehiagoko hiztegiak sartzen dira, aurreko edizioan bezala.

Hainbat atal daude izenburu gutxi biltzen dituztenak, eta horregatik, elkartu egin ditugu, taulen eta grafikoen diseinua errazteko:

- *Testu zientifikoak eta gizarte zientziei buruzkoak*: Testu zientifikoak eta teknikoak eta unibertsitate testuak saila eta Giza eta gizarte zientziei buruzko testuak saila elkartu ditugu.
- *Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak*: Liburu praktikoak eta dibulgazio orokorra sailak barne hartzen ditu.
- *Beste sail batzuk*: Komikiak, hiztegiak eta entziklopediak eta bestelakoak sailak elkartu ditugu.

## Euskaraz argitaratutako izenburuak, sailen arabera

2015ean, argitaletxe pribatuek euskarazko 1.654 izenburu argitaratu dituzte, 2014. urtean baino % 7,5 gutxiago.

Sailen arabera, Unibertsitatekoak ez diren testuen izenburuek lortu dute argitaletxe pribatuek euskaraz argitara emandako izenburuen ehuneko handiena, guztira ekoitzitakoaren % 44,9, hain zuzen ere. Euskaraz argitaratutako izenburuen bigarren ehuneko handiena, % 25,5, Haur eta gazte literatura sailarena izan da. Bi sail horien artean hartzen dute euskaraz guztira argitaratutako izenburuen % 70,4.

Beste autonomia erkidego batzuetako euskarazko argitalpena izenburu guztien % 20,0 izan da. Sailen arabera, Unibertsitatekoak ez diren testuak eta Haur eta gazte literatura sailetakoek hartzen dute beste autonomia erkidego batzuek argitaratutako lanen % 69,4 eta % 23,9, hurrenez hurren.

Unibertsitatekoak ez diren testuak sailean euskaraz argitaratutako izenburu guztien % 30,8 beste autonomia erkidego batzuek argitaratu dituzte; Haur eta gazte literatura sailaren kasuan, kopuru hori % 18,8koa izan da.

**8. TAULA.- EUSKARAZKO IZENBURUEN ARGITALPENA, SAILEN ARABERA, 2015AN. ARGITALETXE PRIBATUAK**

| | Guztira | EAE | NFE* | Ipar EH | Beste AE batzuk |
|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira (balio absolutuak)** | **1.654** | **1.276** | **19** | **29** | **330** |
| Literatura | **221** | 194 | 7 | 18 | 2 |
| *Eleberria* | ***143*** | *127* | *5* | *9* | *2* |
| *Poesia, antzerkia* | ***24*** | *18* | *2* | *4* | – |
| *Beste literatura batzuk* | ***54*** | *49* | – | *5* | – |
| Haur eta gazte literatura | **421** | 326 | 11 | 5 | 79 |
| Unibertsitatekoak ez diren testuak | **744** | 511 | 1 | 3 | 229 |
| *Haur Hezkuntza* | ***97*** | *97* | – | – | – |
| *Lehen Hezkuntza* | ***325*** | *205* | – | – | *120* |
| *DBH* | ***241*** | *149* | – | *2* | *90* |
| *Batxilergoa* | ***18*** | *10* | – | *1* | *7* |
| *Lanbide Heziketa* | ***1*** | *0* | – | – | *1* |
| *Liburuak eta material osagarriak* | ***61*** | *49* | *1* | – | *11* |
| Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak | **149** | 142 | -- | 3 | 4 |
| Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak | **59** | 45 | -- | -- | 14 |
| Beste sail batzuk | **60** | 58 | -- | -- | 2 |

* NFEko bi argitaletxeren datuak EAEko datuetan sartuta daude.

| | **Guztira** | **EAE** | **NFE** | **Ipar EH** | **Beste AE batzuk** |
|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira (% bertikalak)** | **100,0** | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |
| Literatura | ***13,4*** | *15,2* | *36,8* | *62,3* | *0,6* |
| *Eleberria* | ***8,7*** | *10,0* | *26,3* | *31,3* | *0,6* |
| *Poesia, antzerkia* | ***1,5*** | *1,4* | *10,5* | *13,9* | – |
| *Beste literatura batzuk* | ***3,3*** | *3,8* | – | *17,1* | – |
| Haur eta gazte literatura | ***25,5*** | *25,5* | *57,9* | *17,1* | *23,9* |
| Unibertsitatekoak ez diren testuak | **44,9** | 40,0 | 5,3 | *10,1* | 69,4 |
| *Haur Hezkuntza* | ***5,9*** | *7,6* | – | – | – |
| *Lehen Hezkuntza* | ***19,7*** | *16,1* | – | – | *36,4* |
| *DBH* | ***14,6*** | *11,7* | – | *6,6* | *27,3* |
| *Batxilergoa* | ***1,1*** | *0,8* | – | *3,5* | *2,1* |
| *Lanbide Heziketa* | ***0,1*** | *0,0* | – | – | *0,3* |
| *Liburuak eta material osagarriak* | ***3,7*** | *3,9* | *5,3* | – | *3,3* |
| Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak | **9,0** | 11,1 | -- | 10,4 | 1,2 |
| Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak | **3,6** | 3,5 | -- | -- | 4,2 |
| Beste sail batzuk | **3,6** | 4,5 | -- | -- | 0,6 |

Arestian aipaturiko Unibertsitatekoak ez diren testuak eta Haur eta gazte literatura sailen atzetik, Literatura izango litzateke pisu handiena duen hirugarren saila, guztira argitaratutako testuen % 13,4, hain zuzen ere.

Literatura sailean argitaratutako izenburuen % 64,9 eleberriak izan ziren; % 10,8, poesia eta antzerkia, eta % 24,3, beste literatura batzuk.



2015ean, euskaraz argitara emandako izenburuen % 77,2 EAEko argitaletxe pribatuek plazaratu dituzte. EAEko argitaletxeek argitaratutako izenburuek gainditu egiten dute Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak (% 95,3), Literatura (% 87,4), eta bestelako sailetako testuen (% 96,7) guztizkoan lortutako batez bestekoaren ehuneko hori.

Beste autonomia erkidegoetako argitaletxeek, argitaratutako izenburuen guztizkoaren % 19,9 hartzen baitute, % 30,7 hartzen dute Unibertsitatekoak ez diren testuetan, % 23,7 Liburu praktikoetan eta dibulgaziozkoetan eta % 18,8 Haur eta gazte literaturan.

**3. GRAFIKOA.- SAIL BAKOITZEKO EUSKARAZKO IZENBURUEN BANAKETA, ARGITALETXE PRIBATUETAN, JATORRIAREN ARABERA (%-TAN)**

| Guztira | EAE | NFE | Ipar EH | Beste AE batzuk |
|---|---|---|---|---|
| 100,0 | 77,2 | 1,1 | 1,8 | 19,9 |



Aipatu dugun bezala, argitaratutako testuen kopuruak % 7,5 behera egin du aurreko urtearekiko. 2015. urtean, sailen arabera, argitaratutako Testu zientifikoen eta gizarte zientzietakoen kopuruak bakarrik egin du gora (% 1,9). Gainerako sailetan behera egin du argitaratutako izenburuen kopuruak: Haur eta gazte literatura (% 13,1), Unibertsitatekoak ez diren testuak (% 8,0), Literatura (% 2,9), Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak (% 2,1), eta beste sail batzuk (% 1,8).

**9. TAULA. IZENBURUAK, SAILEN ARABERA. 2011-2015 BILAKAERA. 2014. URTEAREKIKO ALDAKUNTZA**

| Argitaratutako izenburuak | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | Aldakuntza (%) |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira** | **1.895** | **1.854** | **1.728** | **1.787** | **1.654** | **-7,5** |
| Literatura | 251 | 250 | 202 | 229 | **221** | **-2,9** |
| Haur eta gazte literatura | 534 | 489 | 526 | 484 | **421** | **-13,1** |
| Unibertsitatekoak ez diren testuak | 896 | 885 | 786 | 807 | **744** | **-8,0** |
| Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak | 82 | 112 | 109 | 146 | **149** | **1,9** |
| Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak | 39 | 39 | 52 | 60 | **59** | **-2,1** |
| Beste sail batzuk | 92 | 80 | 52 | 62 | **60** | **-1,8** |

| % bertikalak | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | Aldea* |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | |
| Literatura | 13,2 | 13,5 | 11,7 | 12,8 | **13,4** | **0,6** |
| Haur eta gazte literatura | 28,2 | 26,4 | 30,4 | 27,1 | **25,4** | **-1,6** |
| Unibertsitatekoak ez diren testuak | 47,3 | 47,7 | 45,5 | 45,1 | **45,0** | **-0,2** |
| Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak | 4,3 | 6,0 | 6,3 | 8,2 | **9,0** | **0,8** |
| Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak | 2,0 | 2,1 | 3,0 | 3,4 | **3,6** | **0,2** |
| Beste sail batzuk | 4,9 | 4,3 | 3,0 | 3,4 | **3,6** | **0,2** |

*Aldea ehunekotan

## Euskaraz argitaratutako aleak, sailen arabera

Argitaletxe pribatuek 2.760.033 ale argitaratu dituzte euskaraz 2015. urtean, aurreko urtean baino % 6,0 gutxiago, hain zuzen ere. Horietatik % 88,9 Euskal Autonomia Erkidegoan argitaratu dira, % 0,5 Nafarroako Foru Erkidegoan, % 0,8 Ipar Euskal Herrian eta % 9,8 beste autonomia erkidego batzuetan.

Unibertsitatekoak ez diren testuak saila da euskaraz ale gehien ekoizten dituena, guztira ekoitzitako aleen % 55,9, hain zuzen ere. Ondoren dator Haur eta gazte literatura saila, guztizkoaren % 23,1ekin. Biak batuta euskaraz argitaratutako aleen guztizkoaren % 79,0 hartzen dute. Beste autonomia erkidego batzuetan, guztira argitaratutako aleen % 95,7 hartzen dute bi sail horiek.

**10. TAULA.- 2015AN EUSKARAZ EKOITZITAKO ALEAK, SAILEN ARABERA (MILAKOTAN). ARGITALETXE PRIBATUAK**

| | Guztira | EAE | NFE | Ipar EH | Beste AE batzuk |
|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira (balio absolutuak) (x1.000)** | **2.760** | **2.453** | **13** | **23** | **271** |
| Literatura | **293** | 283 | 3 | 7 | -- |
| *Eleberria* | **188** | 183 | 2 | 4 | -- |
| *Poesia, antzerkia* | **19** | 17 | 1 | 1 | -- |
| *Beste literatura batzuk* | **85** | 83 | -- | 2 | -- |
| Haur eta gazte literatura | **639** | 547 | 9 | 8 | 75 |
| Unibertsitatekoak ez diren testuak | **1.543** | 1.353 | 1 | 5 | 184 |
| *Haur Hezkuntza* | **236** | 236 | -- | -- | -- |
| *Lehen Hezkuntza* | **692** | 588 | -- | -- | 104 |
| *DBH* | **448** | 376 | -- | 3 | 69 |
| *Batxilergoa* | **25** | 23 | -- | 2 | 1 |
| *Lanbide Heziketa* | **1** | -- | -- | -- | 1 |
| *Liburuak eta material osagarriak* | **141** | 130 | 1 | -- | 10 |
| Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak | **107** | 102 | -- | 3 | 2 |
| Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak | **92** | 84 | -- | -- | 8 |
| Beste sail batzuk | **86** | 84 | -- | -- | 2 |

| | Guztira | EAE | NFE | Ipar EH | Beste AE batzuk |
|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira (% bertikalak)** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| Literatura | **10,6** | 11,5 | 21,5 | 31,0 | -- |
| *Eleberria* | **6,8** | 7,5 | 12,3 | 17,0 | -- |
| *Poesia, antzerkia* | **0,7** | 0,7 | 9,2 | 4,0 | -- |
| *Beste literatura batzuk* | **3,1** | 3,4 | -- | 10,0 | -- |
| Haur eta gazte literatura | **23,2** | 22,3 | 71,6 | 35,0 | 27,5 |
| Unibertsitatekoak ez diren testuak | **55,9** | 55,2 | 6,9 | 22,0 | 68,2 |
| *Haur Hezkuntza* | **8,6** | 9,6 | -- | -- | -- |
| *Lehen Hezkuntza* | **25,1** | 24,0 | -- | -- | 38,4 |
| *DBH.* | **16,2** | 15,3 | -- | 15,0 | 25,3 |
| *Batxilergoa* | **0,9** | 0,9 | -- | 7,0 | 0,3 |
| *Lanbide Heziketa* | **0,0** | -- | -- | -- | 0,3 |
| *Liburuak eta material osagarriak* | **5,1** | 5,3 | 6,9 | -- | 3,9 |
| Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak | **3,9** | 4,2 | -- | 12,0 | 0,7 |
| Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak | **3,3** | 3,4 | -- | -- | 2,8 |
| Beste sail batzuk | **3,1** | 3,4 | -- | -- | 0,8 |

Argitaratutako izenburuetan ikusi dugun bezala, Literatura saila hirugarren garrantzitsuena da ekoitzitako aleei dagokienean ere, ekoizpenaren % 10,6 hartzen baitu.

Literatura sailean eta euskaraz argitaratutako lanen % 64,3 eleberriak izan ziren; % 6,5 Poesia eta antzerkia, eta % 29,1 Beste literatura batzuk.



Guztira argitaratutako aleen % 88,9 EAEko enpresek argitaratzen dute. Sailen arabera, EAEk guztizkoaren % 96,6 argitaratzen du Literaturan, % 95,6 Testu zientifiko eta gizarte zientzietakoetan, % 91,8 Liburu praktiko eta dibulgaziozkoetan eta % 97,5 Beste sail batzuetan.

Beste autonomia erkidego batzuetako argitaletxeek guztira argitaratutako aleen % 9,8 hartzen dute, eta ehuneko hori gainditzen dute Unibertsitatekoak ez diren testuak (% 11,9) eta Haur eta gazte literatura (% 11,7) sailetan.

**4. GRAFIKOA.- SAIL BAKOITZEAN EUSKARAZ ARGITARATUTAKO ALEAK, ARGITALETXE PRIBATUETAN, JATORRIAREN ARABERA (%-TAN)**

| Guztira | EAE | NFE | Ipar EH | Beste AE batzuk |
|---|---|---|---|---|
| 100,0 | 88,9 | 0,5 | 0,8 | 9,8 |



Euskaraz argitaratutako aleen kopuruak % 6,0 behera egin du 2014. urtearekiko. Argitaratutako aleen kopuruak jaitsiera handiena izan duen saila Haur eta gazte literatura izan da, % 8,5ekin, eta ondoren Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak saila dator, % 7,1ekin.

Aleen % 55,9 Unibertsitatekoak ez diren testuak izan dira. Aurreko ekitaldiaren aldean, sail horrek pixka bat gutxiago hartzen du argitaratutako izenburuen guztizkoan (ehuneko 0,6 puntu gutxiago), baina gehiago hartzen dute Literaturak (ehuneko 0,4 puntu gehiago), eta Beste sail batzuek (+ 0,4).

**11. TAULA.- ALEAK, SAILEN ARABERA. 2011-2015 BILAKAERA. 2014. URTEAREKIKO ALDAKUNTZA**

| Argitaratutako aleak (x1.000) | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | Aldakuntza (%) |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira** | **3.351** | **3.272** | **2.821** | **2.937** | **2.760** | **-6,0** |
| Literatura | 332 | 328 | 295 | 301 | **293** | **-2,8** |
| Haur eta gazte literatura | 849 | 743 | 657 | 698 | **639** | **-8,5** |
| Unibertsitatekoak ez diren testuak | 1.915 | 1.956 | 1.643 | 1.646 | **1.543** | **-6,2** |
| Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak | 79 | 85 | 70 | 115 | **107** | **-7,1** |
| Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak | 76 | 64 | 92 | 95 | **92** | **-3,9** |
| Beste sail batzuk | 100 | 96 | 64 | 81 | **86** | **6,7** |

| % bertikalak | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | Aldea* |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | |
| Literatura | 9,9 | 10,0 | 10,5 | 10,3 | **10,6** | **0,3** |
| Haur eta gazte literatura | 25,3 | 22,7 | 23,3 | 23,8 | **23,2** | **-0,6** |
| Unibertsitatekoak ez diren testuak | 57,2 | 59,8 | 58,2 | 56,1 | **55,9** | **-0,1** |
| Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak | 2,4 | 2,6 | 2,5 | 3,9 | **3,9** | **0,0** |
| Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak | 2,3 | 2,0 | 3,3 | 3,2 | **3,3** | **0,1** |
| Beste sail batzuk | 3,0 | 2,9 | 2,3 | 2,7 | **3,1** | **0,4** |

*Aldea ehunekotan

## Batez besteko argitaraldia euskaraz, sailen arabera

Batez besteko euskarazko argitaraldia izenburuko 1.669 alekoa izan da 2015ean. Lurraldeen arabera, honakoa izan da batez besteko argitaraldia: 1.923 alekoa Euskal Autonomia Erkidegoko argitaletxe pribatuetan, 684 alekoa Nafarroako Foru Erkidegoko argitaletxe pribatuetan, 786 alekoa Ipar Euskal Herriko argitaletxeetan eta 821 alekoa beste autonomia erkidegoetako argitaletxeetan.

Sailen arabera, argitaraldi handiena Unibertsitatekoak ez diren testu liburuena da, 2.076 ale izenburuko. Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak saila izango litzateke argitaraldi handiena duen hurrengoa, 1.551 alerekin. Azkenik, Haur eta gazte literatura egongo litzateke aurrekotik oso hurbil, izenburuko 1.520 aleko argitaraldiarekin.

**12. TAULA.- BATEZ BESTEKO ARGITARALDIA EUSKARAZ, SAILEN ARABERA, 2014AN. ARGITALETXE PRIBATUAK**

| | Guztira | EAE | NFE | Ipar EH | Beste AE batzuk |
|---|---|---|---|---|---|
| **Batez besteko argitaraldia** | **1.669** | **1.923** | **684** | **786** | **821** |
| Literatura | **1.324** | 1.457 | 399 | 394 | -- |
| *Eleberria* | **1.316** | 1.439 | 319 | 431 | -- |
| *Poesia, antzerkia* | **796** | 944 | 599 | 228 | -- |
| *Beste literatura batzuk* | **1.581** | 1.694 | -- | 462 | -- |
| Haur eta gazte literatura | **1.520** | 1.680 | 846 | 1.619 | 944 |
| Unibertsitatekoak ez diren testuak | **2.076** | 2.649 | 900 | 1.721 | 807 |
| *Haur Hezkuntza* | **2.435** | 2.435 | -- | -- | -- |
| *Lehen Hezkuntza* | **2.129** | 2.869 | -- | -- | 867 |
| *DBH* | **1.857** | 2.517 | -- | 1.787 | 763 |
| *Batxilergoa* | **1.388** | 2.233 | -- | 1.596 | 114 |
| *Lanbide Heziketa* | **840** | -- | -- | -- | 840 |
| *Liburuak eta material osagarriak* | **2.304** | 2.634 | 900 | -- | 950 |
| Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak | **717** | 720 | -- | 916 | 489 |
| Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak | **1.551** | 1.867 | -- | -- | 537 |
| Beste sail batzuk | **1.427** | 1.439 | -- | -- | 1.085 |

Ondoko taula honetan azken bost urteetako batez besteko argitaraldien bilakaeraren datuak eskaintzen dira.

Batez besteko argitaraldiak gora egin du, 26 ale izenburuko azken urtean, eta horrenbestez, hautsi egin da 2011 eta 2013 urteen artean izandako beheranzko joera.

Sumaturiko gorakada hori ez dago sail guztien artean banatua. Haur eta gazte literaturak 76 aletan handitu du bere argitaraldia, Unibertsitatekoak ez diren testuek 38tan eta bestelako sailek 115etan. Literatura sailak 2014. urteko batez besteko argitaraldi berdinari eutsi dio, Testu zientifikoek eta gizarte zientzietakoek eta Liburu praktikoek eta dibulgaziokoek, berriz, batez besteko argitaraldia txikitu egin dute, 70 eta 29 ale izenburuko, hurrenez hurren.

**13. TAULA.- BATEZ BESTEKO ARGITARALDIA, SAILEN ARABERA. BILAKAERA. 2014. URTEAREKIKO ALDAKUNTZA**

| | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | Aldea |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira** | **1.769** | **1.764** | **1.633** | **1.643** | **1.669** | **26** |
| Literatura | 1.322 | 1.310 | 1.458 | 1.317 | **1.324** | 7 |
| Haur eta gazte literatura | 1.589 | 1.519 | 1.249 | 1.443 | **1.520** | 77 |
| Unibertsitatekoak ez diren testuak | 2.138 | 2.210 | 2.090 | 2.040 | **2.076** | 36 |
| Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak | 965 | 762 | 642 | 787 | **717** | -70 |
| Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak | 1.957 | 1.643 | 1.756 | 1.580 | **1.551** | -29 |
| Beste sail batzuk | 1.080 | 1.204 | 1.235 | 1.313 | **1.427** | 115 |

## KATALOGOKO IZENBURUAK

Argitaletxeek katalogoan dituzten euskarazko izenburuen kopuruak % 2,9 gora egin du 2014. urtearekiko, 14.000 izenburutik gora izanik.

2015eko katalogoan jasotako izenburuen guztizkoaren % 84,3 EAEko argitaletxeenak dira; % 2,0 Nafarroako Foru Erkidegokoenak; % 1,8, Ipar Euskal Herrikoenak, eta % 11.8 beste Autonomia Erkidego batzuetakoenak.

**14. TAULA.- KATALOGOKO IZENBURUAK EUSKARAZ, 2015AN. ARGITALETXE PRIBATUAK**

| | Guztira | EAE | NFE | Ipar EH | Beste AE batzuk |
|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira** | **14.135** | **11.922** | **289** | **261** | **1.663** |
| % horizontala | **100,0** | 84,3 | 2,0 | 1,8 | 11,8 |
| Argitaratutako izenburuak | **1.654** | 1.276 | 19 | 30 | 329 |
| Katalogoko izenburuak / Argitaratutako izenburuak | **8,5** | 9,3 | 15,2 | 8,8 | 5,1 |

2015ean, katalogoko izenburu guztien eta euskaraz argitaratutako izenburuen arteko erlazioa 8,5 izenburukoa izan da. EAEko argitaletxe pribatuetan 9,3koa izango litzateke, NFEko argitaletxeetan 15,2koa, Ipar Euskal Herriko argitaletxeetan 8,8koa eta beste autonomia erkidegokoetan 5,1ekoa.

### Katalogoko izenburuak, sailen arabera

Hurrengo orrialdean katalogoan dauden euskarazko izenburuen taulak ageri dira sailen arabera.

Euskarazko katalogoan, Unibertsitatekoak ez diren testuak (guztizkoaren % 36,5) eta Haur eta gazte literaturakoak (guztizkoaren % 31,1) nagusitzen dira. Bi horien artean % 67,6 hartzen dute katalogoko guztizko izenburuekiko.

Bi sail horiek euskarazko katalogoaren guztizkoan hartzen dutena handiagoa da beste autonomia erkidegoetan, batera hartuta % 93,2 hartzen baitute. Aitzitik, Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian, pisu handiagoa dute Literatura saileko izenburuek, euskaraz ekoitzitako guztizkoaren % 72,3 eta % 47,1 hartzen baitute, hurrenez hurren.

**15. TAULA.- KATALOGOKO EUSKARAZKO IZENBURUAK, SAILEN ARABERA, 2015AN. ARGITALETXE PRIBATUAK**

| | Guztira | EAE | NFE | Ipar EH | Beste AE batzuk |
|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira (balio absolutuak)** | **14.135** | **11.922** | **289** | **261** | **1.663** |
| Literatura | **2.230** | 1.896 | 209 | 123 | 2 |
| *Eleberria* | ***1.572*** | *1.271* | *184* | *115* | *2* |
| *Poesia, antzerkia* | ***282*** | *268* | *6* | *8* | *–* |
| *Beste literatura batzuk* | ***375*** | *356* | *19* | *–* | *–* |
| Haur eta gazte literatura | **4.390** | 3.596 | 38 | 78 | 678 |
| Unibertsitatekoak ez diren testuak | **5.160** | 4.248 | 16 | 24 | 872 |
| *Haur Hezkuntza* | ***844*** | *749* | *–* | *5* | *90* |
| *Lehen Hezkuntza* | ***1.877*** | *1.543* | *–* | *19* | *315* |
| *DBH* | ***1.457*** | *1.120* | *–* | *–* | *337* |
| *Batxilergoa* | ***340*** | *312* | *–* | *–* | *28* |
| *Lanbide Heziketa* | ***18*** | *17* | *–* | *–* | *1* |
| *Liburuak eta material osagarriak* | ***626*** | *509* | *16* | *–* | *101* |
| Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak | **1.470** | 1.412 | 6 | -- | 51 |
| Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak | **435** | 412 | 8 | 10 | 5 |
| Beste sail batzuk | **450** | 358 | 12 | 26 | 54 |

| | Guztira | EAE | NFE | Ipar EH | Beste AE batzuk |
|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira (ehunekoak)** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| Literatura | **15,8** | 15,9 | 72,3 | 47,1 | 0,1 |
| *Eleberria* | ***11,1*** | *10,7* | *63,7* | *44,0* | *0,1* |
| *Poesia, antzerkia* | ***2,0*** | *2,3* | *2,1* | *3,1* | *–* |
| *Beste literatura batzuk* | ***2,7*** | *3,0* | *6,6* | *–* | *–* |
| Haur eta gazte literatura | **31,1** | 30,2 | 13,1 | 30,0 | 40,8 |
| Unibertsitatekoak ez diren testuak | **36,5** | 35,6 | 5,5 | 9,2 | 52,4 |
| *Haur Hezkuntza* | ***6,0*** | *6,3* | *–* | *1,9* | *5,4* |
| *Lehen Hezkuntza* | ***13,3*** | *12,9* | *–* | *7,3* | *18,9* |
| *DBH* | ***10,3*** | *9,4* | *–* | *–* | *20,3* |
| *Batxilergoa* | ***2,4*** | *2,6* | *–* | *–* | *1,7* |
| *Lanbide Heziketa* | ***0,1*** | *0,1* | *–* | *–* | *0,1* |
| *Liburuak eta material osagarriak* | ***4,4*** | *4,3* | *5,5* | *–* | *6,1* |
| Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak | **10,4** | 11,8 | 2,1 | -- | 3,1 |
| Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak | **3,1** | 3,5 | 2,8 | 3,8 | 0,3 |
| Beste sail batzuk | **3,2** | 3,0 | 4,2 | 10,0 | 3,2 |

Argitaletxe pribatuen katalogoetako euskarazko izenburuen % 84,3 EAEko enpresenak dira, % 11,8 beste autonomi erkidegoenak, % 2 NFEko argitaletxeenak eta % 1,8 Iparraldeko argitaletxeenak.

EAEn katalogoetako izenburuen ratioa guztizkoa baino handiagoa da Literatura sailean (%85,0), Testu zientifikoetan eta gizarte zientzietakoetan (% 96,1), eta Liburu praktikoetan eta dibulgaziozkoetan (% 94,7). Gainerako sailetan pixka bat txikiagoa izango litzateke: Haur eta gazte literaturan % 81,9koa EAErako eta % 15,5ekoa beste erakunde autonomoetarako, Unibertsitatekoak ez diren testuetan % 82,3koa EAErako eta % 16,9koa beste erakunde autonomoetarako, eta % 79,5ekoa beste sail batzuetarako.

**5. GRAFIKOA.- KATALOGOKO EUSKARAZKO IZENBURUEN BANAKETA SAILEN ARABERA, ARGITALETXE PRIBATUETAN. JATORRIAREN ARABERA (%-TAN)**

| Guztira | EAE | NFE | Ipar EH | Beste AE batzuk |
|---|---|---|---|---|
| 100,0 | 84,3 | 2,0 | 1,8 | 11,8 |



Ondoren, hurrengo tauletan, izenburu biziek azken 5 urteetan izandako bilakaera ikus daiteke, sailen arabera, baita aurreko urtearekiko aldakuntza ere.

Katalogoetako izenburu bizien kopuruak gorako joerarekin jarraitzen du, % 2,9 igo baita azken urtean, 14.000 izenburutik gora guztira. Azken urtean ehunekoetan gorakada handiena izan duten sailak honako hauek izan dira: Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak (% 10,7 gehiago), Unibertsitatekoak ez diren testuak (% 6,5 gehiago), eta Literatura (% 5,2 gehiago). Aldiz, Beste sail batzuek eta Testu zientifikoek eta gizarte zientzietakoek murriztu egin dute beren katalogoa, % 12,6 eta % 0,9, hurrenez hurren.

**16. TAULA. IZENBURU BIZIAK, SAILEN ARABERA. 2011-2015 BILAKAERA. 2014. URTEAREKIKO ALDAKUNTZA**

| Izenburu biziak | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | Aldakuntza (%) |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira** | **12.489** | **13.046** | **13.418** | **13.739** | **14.135** | **2,9** |
| Literatura | 1.977 | 2.158 | 2.233 | 2.120 | **2.230** | **5,2** |
| Haur eta gazte literatura | 3.887 | 3.978 | 4.303 | 4.385 | **4.390** | **0,1** |
| Unibertsitatekoak ez diren testuak | 4.694 | 4.639 | 4.530 | 4.844 | **5.160** | **6,5** |
| Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak | 1.098 | 1.455 | 1.466 | 1.482 | **1.470** | **-0,9** |
| Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak | 329 | 403 | 400 | 393 | **435** | **10,7** |
| Beste sail batzuk | 505 | 412 | 486 | 515 | **450** | **-12,6** |

| % bertikalak | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | Aldea* |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | |
| Literatura | 15,8 | 16,5 | 16,7 | 15,4 | **15,8** | **0,3** |
| Haur eta gazte literatura | 31,1 | 30,5 | 32,2 | 31,9 | **31,1** | **-0,9** |
| Unibertsitatekoak ez diren testuak | 37,6 | 35,6 | 33,6 | 35,3 | **36,5** | **1,3** |
| Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak | 8,8 | 11,2 | 10,8 | 10,8 | **10,4** | **-0,4** |
| Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak | 2,6 | 3,1 | 3,1 | 2,9 | **3,1** | **0,2** |
| Beste sail batzuk | 4,0 | 3,2 | 3,6 | 3,7 | **3,2** | **-0,6** |

*Aldea ehunekotan

# MERKATURATZEA

## 2015EKO FAKTURAZIOA

2015ean, euskarazko liburuen salmentatik etorritako fakturazioa 37.296.489 eurokoa izan da, hau da, aurreko ekitaldian lortutakoa baino % 3,0 handiagoa. Fakturazio guztiaren % 91,8 EAEko argitaletxeen merkataritza jarduerari dagokio.

**17. TAULA.- EUSKARAZKO FAKTURAZIOA 2015AN. ARGITALETXE PRIBATUAK**

| | Guztira | EAE | NFE | Ipar EH | Beste AE batzuk |
|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira (milaka euro)** | **37,296** | **34.225** | **72** | **168** | **2.832** |
| % horizontala | 100,0 | 91,8 | 0,2 | 0,5 | 7,6 |

### Fakturazioaren zenbatekoa, sailen arabera

2015ean, euskarazko liburuak saltzeagatik lortutako fakturazio osoaren % 77,2 Unibertsitatekoak ez diren testuen sailetik dator. Fakturazio osoaren gainerako % 22,8 horretatik % 14,7 Haur eta Gazte literatura sailak hartu du, % 5,2 Literaturak eta % 2,9 Beste sail batzuek.

Ohikoa den bezala, Unibertsitatekoak ez diren testuen liburuen salmenta handiagoa izan da beste autonomi erkidego batzuetan, pisu handiagoa hartu du (% 80,5). Aldiz, Haur eta gazte literatura saila nagusitu egin da NFEn eta Ipar Euskal Herrian, % 68,8ko eta % 41,0ko pisua baitu, hurrenez hurren, guztizkoan.

**18. TAULA.- EUSKARAZKO FAKTURAZIOA 2015AN, SAILEN ARABERA. ARGITALETXE PRIBATUAK**

| | Guztira | EAE | NFE | Ipar EH | Beste AE batzuk |
|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira (milaka euro)** | **37.296** | **34.225** | **72** | **168** | **2.832** |
| Literatura | **1.928** | 1.873 | 11 | 44 | 1 |
| *Eleberria* | ***1.513*** | *1.484* | *6* | *22* | *1* |
| *Poesia, antzerkia* | ***102*** | *96* | *3* | *3* | – |
| *Beste literatura batzuk* | ***313*** | *293* | *2* | *18* | – |
| Haur eta gazte literatura | **5.476** | 4.930 | 50 | 69 | 428 |
| Unibertsitatekoak ez diren testuak | **28.782** | 26.486 | 1 | 15 | 2.281 |
| *Haur Hezkuntza* | ***4.469*** | *4.166* | – | *3* | *300* |
| *Lehen Hezkuntza* | ***14.380*** | *13.280* | – | *5* | *1.094* |
| *DBH* | ***5.718*** | *5.220* | – | *7* | *491* |
| *Batxilergoa* | ***1.868*** | *1.632* | – | – | *237* |
| *Lanbide Heziketa* | ***91*** | *91* | – | – | *0* |
| *Liburuak eta material osagarriak* | ***2.256*** | *2.097* | *1* | – | *158* |
| Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak | **324** | 271 | 3 | 20 | 30 |
| Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak | **417** | 404 | 3 | -- | 10 |
| Beste sail batzuk | **369** | 262 | 5 | 20 | 82 |

| | Guztira | EAE | NFE | Ipar EH | Beste AE batzuk |
|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira (% bertikalak)** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| Literatura | 5,2 | 5,5 | 14,7 | 26,1 | -- |
| *Eleberria* | *4,1* | *4,3* | *8,3* | *13,1* | – |
| *Poesia, antzerkia* | *0,3* | *0,3* | *3,7* | *2,0* | – |
| *Beste literatura batzuk* | *0,8* | *0,9* | *2,8* | *11,0* | – |
| Haur eta gazte literatura | 14,7 | 14,4 | 68,8 | 41,0 | 15,1 |
| Unibertsitatekoak ez diren testuak | 77,2 | 77,4 | 0,9 | 9,0 | 80,5 |
| *Haur Hezkuntza* | *12,0* | *12,2* | – | *2,0* | *10,6* |
| *Lehen Hezkuntza* | *38,6* | *38,8* | – | *3,0* | *38,6* |
| *DBH* | *15,3* | *15,3* | – | *4,0* | *17,3* |
| *Batxilergoa* | *5,0* | *4,8* | – | – | *8,4* |
| *Lanbide Heziketa* | *0,2* | *0,3* | – | – | – |
| *Liburuak eta material osagarriak* | *6,0* | *6,1* | *0,9* | – | *5,6* |
| Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak | 0,9 | 0,8 | 4,2 | 12,0 | 1,1 |
| Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak | 1,1 | 1,2 | 4,2 | -- | 0,4 |
| Beste sail batzuk | 1,0 | 0,8 | 7,3 | 12,0 | 2,9 |

Literatura sailaren fakturazioaren % 78,5 Eleberriari dagokio. Poesiak eta antzerkiak % 5,3 hartzen du, eta Beste literatura batzuek, % 16,3.



## Fakturazioa sailez sail jatorriaren arabera

2015. urtean, fakturazio osoaren % 91,8 EAEko argitaletxeek saldutako euskarazko liburuen salmentatik lortu da, eta % 7,6 beste autonomia erkidegoetan. Sailen arabera, EAEn, Literaturak (% 97,1) eta Liburu praktikoek eta dibulgaziozkoek (% 96,9) batez bestekoak baino ratio handiagoa dute, argi eta garbi; Testu zientifikoek eta gizarte zientzietakoek (% 9,3) eta Beste sail batzuek (% 22,2), berriz, beste autonomia erkidegoetako batez bestekoak baino ehuneko handiagoa dute.

**6. GRAFIKOA.- EUSKARAZKO FAKTURAZIOAREN BANAKETA, SAILEN ARABERA, ARGITALETXE PRIBATUETAN (%-TAN)**

| Guztira | EAE | NFE | Ipar EH | Beste AE batzuk |
|---|---|---|---|---|
| 100,0 | 91,8 | 0,2 | 0,5 | 7,6 |



Ikusi dugun bezala, 2015ean fakturazioak % 3,0 gora egin du aurreko urtearekiko. Nolanahi ere, azken 5 urteetan, 2011. urteaz geroztik, fakturazioa pixka bat jaitsi egin da, baina % 0,9 besterik ez.

Datu horiek sailen arabera aztertuz gero, Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak (% 14,9 gehiago), Literatura (% 4,9 gehiago) eta Unibertsitatekoak ez diren testuak (% 3,9 gehiago) sailak izango lirateke 2014. urtearekin alderatuta fakturazioa gehien handitu dutenak. Aldiz, Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak eta Haur eta gazte literatura izan dira fakturazio txikiagoa izan duten sail bakarrak, % 3,4 eta % 2,2 jaitsi baitute, hurrenez hurren. Haur eta gazte literaturaren kasuan, azken urtean % 2,2 gutxiago fakturatu izan arren, orain dela 5 urtekoa baino % 9,4 handiagoa izango litzateke sail horren fakturazioa. Liburu praktikoen eta dibulgaziozkoen kasuan, berriz, alderantzizkoa gertatzen da, 2011n fakturatutakoa baino % 32,4 txikiagoa izan baita fakturazio hori.

**19. TAULA.- FAKTURAZIOA, SAILEN ARABERA. 2011-2015 BILAKAERA. 2014. URTEAREKIKO ALDAKUNTZA**

| Fakturazioa (x 1.000) | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | Aldakuntza (%) |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira** | **37.629** | **36.408** | **35.037** | **36.213** | **37.296** | **3,0** |
| Literatura | 1.874 | 1.964 | 1.600 | 1.838 | **1.928** | **4,9** |
| Haur eta gazte literatura | 5.004 | 5.320 | 5.361 | 5.599 | **5.476** | **-2,2** |
| Unibertsitatekoak ez diren testuak | 29.048 | 27.719 | 27.052 | 27.697 | **28.782** | **3,9** |
| Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak | 378 | 326 | 247 | 282 | **324** | **14,9** |
| Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak | 616 | 550 | 334 | 432 | **417** | **-3,4** |
| Beste sail batzuk | 708 | 530 | 443 | 366 | **369** | **0,9** |

| % bertikalak | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | Aldea* |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | |
| Literatura | 5,0 | 5,4 | 4,6 | 5,1 | **5,2** | **0,1** |
| Haur eta gazte literatura | 13,3 | 14,6 | 15,3 | 15,5 | **14,7** | **-0,8** |
| Unibertsitatekoak ez diren testuak | 77,2 | 76,1 | 77,2 | 76,5 | **77,2** | **0,7** |
| Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak | 1,0 | 0,9 | 0,7 | 0,8 | **0,9** | **0,1** |
| Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak | 1,6 | 1,5 | 1,0 | 1,2 | **1,1** | **-0,1** |
| Beste sail batzuk | 1,9 | 1,5 | 1,3 | 1,0 | **1,0** | **0,0** |

*Aldea ehunekotan

Ondorengo grafikoetan, euskarazko fakturazioak azken bost urteetan izandako bilakaera ikus dezakegu, guztira eta sail guztietan.

Ikusi dugun bezala, 2015ean fakturatutako guztizko kopurua oso hurbil dago 2011n fakturatutakotik, % 0,9 gutxiago besterik ez. Sailei dagokienean, Literaturaren eta Unibertsitatekoak ez diren testuen kopuruak oso hurbil dabiltza orain dela 5 urte izandakoetatik. Haur eta gazte literatura sailak 2011. urtean baino % 9,4 gehiago fakturatu du. Aitzitik, Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak eta Testu praktikoak eta dibulgaziozkoak sailek orain dela 5 urte baino % 14,3 eta % 32,4 gutxiago fakturatu dute, hurrenez hurren. “Beste sail batzuk” izango litzateke 2011. urtearekiko fakturazioa gehien murriztu duen saila, % 47,8, hain zuzen ere.

**7. GRAFIKOA.- EUSKARAZKO FAKTURAZIOAREN BILAKAERA. GUZTIRA ETA SAILEN ARABERA (2011-2015)**



## LIBURUAK MERKATURATZEKO BIDEAK

Merkaturatze bide desberdinen arabera, 2015. urtean berriro ere Liburu dendak izan dira fakturazio handiena sortu dutenak (% 40,1). Bide hori eta Liburu denden kateak elkartuta (% 17,3) bi bide tradizional horien bidez merkaturatzen den fakturazioaren % 57,4 izango genuke. Enpresak eta erakundeak izango litzateke guztizkoarekiko bigarren bide garrantzitsuena (ikastetxeetan saltzen diren testu liburuak barne), % 30,1eko pisuarekin.

EAEn fakturazio bideen araberako fakturazioaren xehetasuna guztizkoaren nahiko antzekoa da. Aldiz, NFEn, Ipar Euskal Herrian eta beste autonomia erkidegoetan dezente handiagoa da Liburu denden pisua, NFEn eta Ipar Euskal Herrian beste bi eremuetan baino askoz ere negozio zifra txikiagoa izan arren.

**20. TAULA.- EUSKARAZKO FAKTURAZIOA 2014AN, MERKATURATZE BIDEEN ARABERA. ARGITALETXE PRIBATUAK**

| | Guztira | EAE | NFE | Ipar EH | Beste AE batzuk |
|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira (x1.000)** | **37.297** | **34.225** | **72** | **168** | **2.832** |
| Liburu dendak | **14.970** | 13.274 | 44 | 103 | 1.549 |
| Liburu denden kateak | **6.454** | 5.982 | 16 | 6 | 450 |
| Hipermerkatuak | **2.677** | 2.283 | 7 | 4 | 382 |
| Enpresak eta erakundeak | **11.216** | 10.928 | 2 | 0 | 286 |
| Salmenta zuzena | **696** | 633 | 2 | 36 | 25 |
| Beste bide batzuk[6] | **1.284** | 1.125 | 1 | 18 | 140 |

| | Guztira | EAE | NFE | Ipar EH | Beste AE batzuk |
|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira (% bertikalak)** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| Liburu dendak | **40,1** | 38,8 | 61,5 | 61,4 | 54,7 |
| Liburu denden kateak | **17,3** | 17,5 | 22,0 | 3,8 | 15,9 |
| Hipermerkatuak | **7,2** | 6,7 | 9,4 | 2,5 | 13,5 |
| Enpresak eta erakundeak | **30,1** | 31,9 | 2,5 | 0,0 | 10,1 |
| Salmenta zuzena | **1,9** | 1,8 | 3,1 | 21,4 | 0,9 |
| Beste bide batzuk | **3,4** | 3,3 | 1,5 | 10,8 | 4,9 |

[6] Beste bide batzuen barruan daude Liburutegiak, Kioskoak, Liburu azokak, Liburu dendak ez diren dendak eta bide digitalen bidezko salmenta.

Argitaletxe pribatuen salmenta osoaren % 91,8 EAEn lortu dute. Salmenta bideen arabera bereizita, EAEn ehuneko hori txikiagoa da Liburu dendentzat (% 88,7), Hipermerkatuentzat (% 85,3) eta Beste bideentzat (% 87,6), eta bide horietan presentzia handiagoa du beste autonomia erkidego batzuetan dauden argitaletxeen euskarazko liburuen salmentak (% 10,3, % 14,3 eta % 10,9, hurrenez hurren).

**8. GRAFIKOA.- EUSKARAZKO FAKTURAZIOAREN BANAKETA, MERKATURATZE BIDEEN ARABERA, ARGITALETXE PRIBATUETAN (%-TAN)**

| Guztira | EAE | NFE | Ipar EH | Beste AE batzuk |
|---|---|---|---|---|
| 100,0 | 91,8 | 0,2 | 0,5 | 7,6 |



Euskarazko liburuen salmentatik etorritako fakturazioa % 3,0 igo da 2014. urteari dagokionez, baina % 0,8 jaitsi da azken 5 urteetan.

Salmenta bide guztiek beren fakturazioa handitu dute aurreko ekitaldiarekiko.

2014. eta 2015. urteen artean fakturazioan aldaketa txikiak izan dira merkaturatzeko bideei dagokienean, antzeko banaketa erlatiboa izan baitute.

**21. TAULA.- FAKTURAZIOA, MERKATURATZE BIDEEN ARABERA. 2011-2015 BILAKAERA. 2014. URTEAREKIKO ALDAKUNTZA**

| Fakturazioa (x1.000) | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | Aldakuntza (%) |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira** | **37.629** | **36.408** | **35.037** | **36.214** | **37.297** | **3,0** |
| Liburu dendak | 17.359 | 15.523 | 15.023 | 14.802 | **14.970** | **1,1** |
| Liburu denden kateak | 5.434 | 5.723 | 5.761 | 6.279 | **6.454** | **2,8** |
| Hipermerkatuak | 2.909 | 2.598 | 2.588 | 2.606 | **2.677** | **2,7** |
| Enpresak eta erakundeak | 10.793 | 11.142 | 9.971 | 10.753 | **11.216** | **4,3** |
| Zuzeneko salmenta | 486 | 532 | 691 | 518 | **696** | **34,5** |
| Beste bide batzuk | 649 | 890 | 1.003 | 1.256 | **1.284** | **2,3** |

| % bertikalak | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | Aldea* |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | |
| Liburu dendak | 46,1 | 42,6 | 42,9 | 40,9 | **40,1** | **-0,7** |
| Liburu denden kateak | 14,4 | 15,7 | 16,4 | 17,3 | **17,3** | **0,0** |
| Hipermerkatuak | 7,7 | 7,1 | 7,4 | 7,2 | **7,2** | **0,0** |
| Enpresak eta erakundeak | 28,7 | 30,6 | 28,5 | 29,7 | **30,1** | **0,4** |
| Zuzeneko salmenta | 1,3 | 1,5 | 2,0 | 1,4 | **1,9** | **0,4** |
| Beste bide batzuk | 1,7 | 2,4 | 2,9 | 3,5 | **3,4** | **0,0** |

*Aldea ehunekotan

Ondoren agertzen diren grafikoek euskarazko fakturazioaren azken urteetako bilakaera erakusten dute (2011-2015), guztira eta merkaturatze bideen arabera.

Enpresak eta erakundeak (+% 3,9), Zuzeneko salmenta (+% 43,2, honek gora egin du aurreko ekitaldian jaitsiera izan ondoren) eta Beste bide batzuk (+% 97,9) dira 2015eko fakturazioan orain dela bost urte (2011) baino zifra hobeak lortu dituzten bideak. Liburu dendek eta Liburu denden kateek eta Hipermerkatuek jarraitzen dute 2011n baino % 6 eta % 8 gutxiago fakturatzen, hurrenez hurren.

**9. GRAFIKOA.- EUSKARAZKO FAKTURAZIOAREN BILAKAERA. GUZTIRA ETA MERKATURATZE BIDEEN ARABERA (2011-2015)**




**Beste bide batzuen** barruan daude Liburutegiak, Kioskoak, Liburu azokak, Liburu dendak ez diren dendak eta bide digitalen bidezko salmenta.

## Batez besteko salneurriak eta saldutako aleak

2015ean, euskarazko 2.542.986 ale saldu dira guztira, 2014an baino % 7,9 gehiago eta 2013an baino % 11,3 gehiago.

2015ean saldutako ale guztien % 92,6 EAEko argitaletxe pribatuenak izan dira, eta % 6,8 beste autonomia erkidego batzuetakoenak.

**22. TAULA.- SALDUTAKO ALEAK. 2011-2015 BILAKAERA. 2014. URTEAREKIKO ALDAKUNTZA**

| Saldutako aleak (x1.000) | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | Aldakuntza (%) |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira** | **2.502** | **2.367** | **2.277** | **2.358** | **2.543** | **7,9** |
| EAE | 2.241 | 2.128 | 2.067 | 2.169 | **2.354** | **8,5** |
| NFE | 7 | 7 | 6 | 6 | **6** | **-2,8** |
| Ipar EH | 12 | 13 | 13 | 13 | **11** | **-13,8** |
| Beste AE batzuk | 242 | 220 | 191 | 170 | **173** | **1,5** |

| % bertikalak | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | Aldea* |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | |
| EAE | 89,6 | 89,9 | 90,8 | 92,0 | **92,6** | **0,6** |
| NFE | 0,3 | 0,3 | 0,2 | 0,2 | **0,2** | **0,0** |
| Ipar EH | 0,5 | 0,5 | 0,6 | 0,5 | **0,4** | **-0,1** |
| Beste AE batzuk | 9,7 | 9,3 | 8,4 | 7,2 | **6,8** | **-0,4** |

*Aldea ehunekotan

Argitaratutako eta saldutako aleen aldea 216.207koa izan da 2015ean. Horrek esan nahi du euskaraz argitaratutako aleen % 7,8 ez direla saldu. Ehuneko hori % 57,7koa izan da NFEn, % 52,7koa Ipar Euskal Herrian eta % 36,0koa Beste autonomia erkidego batzuetan. Nolanahi ere, kontuan hartu behar dugu urte batean argitaratzen diren ale guztiak ez direla ekitaldi berean saltzen.

Azkenik, batez besteko prezio orokorra 14,7 eurokoa izan da 2015ean, eta garestiagoa izan da Ipar Euskal Herrian (15,6 €) eta beste autonomia erkidego batzuetan (16,4 €).

**23. TAULA.- ARGITARATUTAKO ALEEN, SALDUTAKO ALEEN ETA FAKTURAZIOAREN ARTEKO ERLAZIOA**

| Balio absolutuak | Guztira | EAE | NFE | Ipar EH | Beste AE batzuk |
|---|---|---|---|---|---|
| Argitaratutako aleak | **2.759.193** | 2.453.250 | 13.000 | 22.800 | 270.143 |
| Saldutako aleak | **2.542.986** | 2.353.835 | 5.505 | 10.779 | 172.868 |
| *Argitaratuen-salduen aldea* | **216.207** | 99.415 | 7.495 | 12.021 | 97.275 |
| *Salduen/argitaratuen %* | **92,2** | 95,9 | 42,3 | 47,3 | 64,0 |
| Fakturazioa (milaka euro) | **37.296** | 34.225 | 72 | 168 | 2.832 |
| *Batez besteko salneurria, eurotan* | **14,7** | 14,5 | 13,1 | 15,6 | 16,4 |

Argitaratutako eta saldutako aleei nahiz fakturazioari zegokienez, zenbateko osoaren % 90 inguru EAEk lortu du; hortaz, euskarazko liburuak argitaratzeko eta merkaturatzeko eremurik garrantzitsuena izan da. Era berean, garrantzitsua da Beste autonomia erkidego batzuek sektoreari egiten dioten ekarpena, % 8 inguruko partaidetzarekin.

**24. TAULA.- EAE, NFE, IPAR EH ETA BESTE AUTONOMIA ERKIDEGO BATZUEN PARTE HARTZEA, HAINBAT MAGNITUDETAN**

| % horizontala | Guztira | EAE | NFE | Ipar EH | Beste AE batzuk |
|---|---|---|---|---|---|
| Argitaratutako aleak | **100,0** | 88,9 | 0,5 | 0,8 | 9,8 |
| Saldutako aleak | **100,0** | 92,6 | 0,2 | 0,4 | 6,8 |
| Fakturazioa (milaka euro) | **100,0** | 91,8 | 0,2 | 0,5 | 7,6 |

## UNIBERTSITATEKOAK EZ DIREN TESTUAK, EUSKARAZ

Atal honetan, argi geratzen da zer-nolako garrantzia duten euskarazko testuliburuek hizkuntza horretako argitalpenean. Kontuan izanik argitaratutako izenburuen % 4,9, ekoitzitako aleen % 55,9, katalogoko izenburuen % 36,5 eta fakturazioaren % 77,2 izan direla euskarazko testuliburuak, beharrezkotzat daukagu sail hau xehetasun handiagoz aztertzea, barne hartzen dituen gaiak aintzat hartuta.

**25. TAULA.- 2015AN ARGITARATUTAKO UNIBERTSITATEKOAK EZ DIREN TESTUEN EUSKARAZKO IZENBURUAK**

| Argitaratutako izenburuak | Guztira | EAE | NFE | Ipar EH | Beste AE batzuk |
|---|---|---|---|---|---|
| **Unibertsitatekoak ez diren testuak, guztira** | **744** | **511** | **1** | **3** | **229** |
| Haur Hezkuntza | **97** | 97 | -- | -- | -- |
| Lehen Hezkuntza | **325** | 205 | -- | -- | 120 |
| DBH | **241** | 149 | -- | 2 | 90 |
| Batxilergoa | **18** | 10 | -- | 1 | 7 |
| Lanbide Heziketa | **1** | -- | -- | -- | 1 |
| Liburuak eta material osagarriak | **61** | 49 | 1 | -- | 11 |

| Argitaratutako izenburuak | Guztira | EAE | NFE | Ipar EH | Beste AE batzuk |
|---|---|---|---|---|---|
| **(% bertikalak)** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| Haur Hezkuntza | **13,1** | 19,0 | -- | -- | -- |
| Lehen Hezkuntza | **43,8** | 40,1 | -- | -- | 52,2 |
| DBH | **32,4** | 29,2 | -- | 66,7 | 39,5 |
| Batxilergoa | **2,4** | 2,0 | -- | 33,3 | 3,1 |
| Lanbide Heziketa | **0,1** | -- | -- | -- | 0,4 |
| Liburuak eta material osagarriak | **8,2** | 9,7 | 100,0 | -- | 4,8 |

Unibertsitatekoak ez diren testuen euskarazko izenburuen kopurua 2014an baino % 7,9 txikiagoa izan da, eta orain dela bost urte baino % 17,1 txikiagoa.

**26. TAULA.- UNIBERTSITATEKOAK EZ DIREN TESTUEN EUSKARAZKO IZENBURUAK. 2011-2015 BILAKAERA. 2014. URTEAREKIKO ALDAKUNTZA**

| Argitaratutako izenburuak | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | Aldakuntza (%) |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira** | **896** | **885** | **786** | **807** | **744** | **-7,9** |
| Haur Hezkuntza | 164 | 133 | 117 | 110 | **97** | **-11,8** |
| Lehen Hezkuntza | 271 | 306 | 321 | 320 | **325** | **1,2** |
| DBH | 261 | 295 | 218 | 262 | **241** | **-7,7** |
| Batxilergoa | 62 | 38 | 34 | 37 | **18** | **-50,9** |
| Lanbide Heziketa | 7 | 4 | 3 | 2 | **1** | **-50,0** |
| Liburuak eta material osagarriak | 131 | 108 | 93 | 76 | **61** | **-19,5** |

| % bertikala | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | Aldea* |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | |
| Haur Hezkuntza | 18,3 | 15,0 | 14,8 | 13,6 | **13,1** | -0,5 |
| Lehen Hezkuntza | 30,3 | 34,5 | 40,9 | 39,7 | **43,8** | 4,1 |
| DBH | 29,1 | 33,4 | 27,7 | 32,4 | **32,4** | 0,0 |
| Batxilergoa | 7,0 | 4,3 | 4,3 | 4,6 | **2,4** | -2,2 |
| Lanbide Heziketa | 0,8 | 0,5 | 0,3 | 0,2 | **0,1** | -0,1 |
| Liburuak eta material osagarriak | 14,6 | 12,2 | 11,9 | 9,4 | **8,2** | -1,2 |

*Aldea ehunekotan

1.543.892 ale argitaratu dituzte euskaraz Unibertsitatekoak ez diren testuak sailean. Lehen Hezkuntzari ale horien % 44,9 dagokio (% 42,9, 2014an), DBHri % 29,1 (% 26,3, 2014an) eta Haur Hezkuntzari % 15,3 (% 17,6, 2014an).

**27. TAULA.- 2015AN ARGITARATUTAKO UNIBERTSITATEKOAK EZ DIREN TESTUEN EUSKARAZKO ALEAK (MILAKOTAN)**

| Argitaratutako aleak (x 1.000) | Guztira | EAE | NFE | Ipar EH | Beste AE batzuk |
|---|---|---|---|---|---|
| **Unibertsitatekoak ez diren testuak, guztira** | **1.543** | **1.353** | **1** | **5** | **185** |
| Haur Hezkuntza | **236** | 236 | -- | -- | -- |
| Lehen Hezkuntza | **692** | 588 | -- | -- | 104 |
| DBH | **448** | 376 | -- | 3 | 69 |
| Batxilergoa | **25** | 23 | -- | 2 | 1 |
| Lanbide Heziketa | **1** | -- | -- | -- | 1 |
| Liburuak eta material osagarriak | **140** | 130 | 1 | -- | 10 |

| % bertikalak | Guztira | EAE | NFE | Ipar EH | Beste AE batzuk |
|---|---|---|---|---|---|
| **Unibertsitatekoak ez diren testuak, guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| Haur Hezkuntza | **15,3** | 17,4 | - | -- | -- |
| Lehen Hezkuntza | **44,9** | 43,5 | - | -- | 56,3 |
| DBH | **29,1** | 27,8 | - | 68,2 | 37,2 |
| Batxilergoa | **1,6** | 1,7 | - | 31,8 | 0,4 |
| Lanbide Heziketa | **0,1** | -- | - | -- | 0,1 |
| Liburuak eta material osagarriak | **9,1** | 9,6 | 100,0 | -- | 5,7 |

Aurreko urtearekin alderatuta, argitaratutako aleen guztizko kopuruak % 6,8 egin du behera 2015ean. Jaitsiera nabarmenenak Lanbide Heziketan (-% 84,4), Batxilergoan (-% 28,9), Liburu eta material osagarrietan (-% 22,0) eta Haur Hezkuntzan (-% 19,2) izan dira. Aleen kopuruak DBHn bakarrik egin du gora (% 3,0).

**28. TAULA.- UNIBERTSITATEKOAK EZ DIREN EUSKARAZKO ALEAK (X 1.000). 2011-2015 BILAKAERA. 2014. URTEAREKIKO ALDAKUNTZA**

| Argitaratutako aleak (x1.000) | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | Aldakuntza (%) |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira** | **1.915** | **1.956** | **1.645** | **1.655** | **1.543** | **-6,8** |
| Haur Hezkuntza | 418 | 375 | 379 | 292 | **236** | -19,2 |
| Lehen Hezkuntza | 728 | 759 | 643 | 711 | **692** | -2,6 |
| DBH | 371 | 487 | 365 | 435 | **448** | 3,0 |
| Batxilergoa | 84 | 44 | 30 | 36 | **25** | -28,9 |
| Lanbide Heziketa | 5 | 3 | 2 | 2 | **1** | -33,7 |
| Liburuak eta material osagarriak | 310 | 287 | 227 | 180 | **140** | -22,0 |

| % bertikalak | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | Aldea* |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | |
| Haur Hezkuntza | 21,8 | 19,2 | 23,0 | 17,6 | **15,3** | -2,3 |
| Lehen Hezkuntza | 38,0 | 38,8 | 39,1 | 42,9 | **44,9** | 2,0 |
| DBH | 19,4 | 24,9 | 22,2 | 26,3 | **29,1** | 2,8 |
| Batxilergoa | 4,4 | 2,3 | 1,8 | 2,2 | **1,6** | -0,5 |
| Lanbide Heziketa | 0,3 | 0,2 | 0,1 | 0,1 | **0,1** | 0,0 |
| Liburuak eta material osagarriak | 16,2 | 14,7 | 13,8 | 10,9 | **9,1** | -1,8 |

*Aldea ehunekotan

Unibertsitatekoak ez diren testuen sailean batez besteko argitaraldia 2.077 alekoa izan zen 2014an (2.051 aurreko ekitaldian). EAEko argitaletxeek bakarrik gainditzen dute kopuru hori, 2.649 alerekin izenburu bakoitzeko.

Sailen arabera, batez besteko argitaraldi handienak Haur Hezkuntzakoak (2.435 ale izenburu bakoitzeko), Liburuak eta material osagarriak (2.304 ale izenburu bakoitzeko) eta Lehen Hezkuntzakoak (2.136 ale izenburu bakoitzeko) izan dira.

**29. TAULA.- UNIBERTSITATEKOAK EZ DIREN TESTUEN EUSKARAZKO BATEZ BESTEKO ARGITARALDIA 2015AN**

| Batez besteko argitaraldia | Guztira | EAE | NFE | Ipar EH | Beste AE batzuk |
|---|---|---|---|---|---|
| **Unibertsitatekoak ez diren testuak, guztira** | **2.077** | 2.649 | 900 | 1.721 | 810 |
| Haur Hezkuntza | **2.435** | 2.435 | -- | -- | -- |
| Lehen Hezkuntza | **2.136** | 2.869 | -- | -- | 874 |
| DBH | **1.857** | 2.517 | -- | 1.787 | 763 |
| Batxilergoa | **1.388** | 2.233 | -- | 1.596 | 114 |
| Lanbide Heziketa | **840** | -- | -- | -- | 840 |
| Liburuak eta material osagarriak | **2.304** | 2.634 | 900 | -- | 950 |

2014. urtekoaren antzekoa da batez besteko argitaraldia (2014an baino 26 ale gehiago). Haur Hezkuntza izan da batez besteko argitaraldia gehien murriztu duen saila (221 ale), ondoren Lehen Hezkuntza (85 ale) eta Liburuak eta material osagarriak (59 ale). Aitzitik, Batxilergoak 431 aletan handitu du batez besteko argitaraldia eta DBHk, berriz 194 aletan.

**30. TAULA.- UNIBERTSITATEKOAK EZ DIREN TESTUEN BATEZ BESTEKO ARGITARALDIA. 2011-2015 BILAKAERA. ALDAKUNTZA 2014ARI DAGOKIONEZ**

| Batez besteko argitaraldia | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | Aldea |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Unibertsitatekoak ez diren testuak, guztira** | **2.138** | **2.210** | **2.093** | **2.051** | **2.077** | **26** |
| Haur Hezkuntza | 2.554 | 2.820 | 3.246 | 2.656 | **2.435** | -221 |
| Lehen Hezkuntza | 2.681 | 2.484 | 2.000 | 2.221 | **2.136** | -85 |
| DBH | 1.423 | 1.648 | 1.673 | 1.663 | **1.857** | 194 |
| Batxilergoa | 1.340 | 1.157 | 882 | 957 | **1.388** | 431 |
| Lanbide Heziketa | 730 | 751 | 720 | 822 | **840** | 18 |
| Liburuak eta material osagarriak | 2.363 | 2.653 | 2.430 | 2.363 | **2.304** | -59 |

Unibertsitatekoak ez diren testuak sailak 5.160 izenburu zituen katalogoan. Izenburu horien % 36,4 Lehen Hezkuntzakoak ziren, eta % 28,2 DBHkoak.

**31. TAULA.- UNIBERTSITATEKOAK EZ DIREN TESTUEN EUSKARAZKO IZENBURU BIZIAK 2014AN**

| Izenburu biziak | Guztira | EAE | NFE | Ipar EH | Beste AE batzuk |
|---|---|---|---|---|---|
| **Unibertsitatekoak ez diren testuak, guztira** | **5.160** | **4.248** | **16** | **24** | **872** |
| Haur Hezkuntza | **844** | 749 | - | 5 | 90 |
| Lehen Hezkuntza | **1.877** | 1.543 | - | 19 | 315 |
| DBH | **1.457** | 1.120 | - | - | 337 |
| Batxilergoa | **340** | 312 | - | - | 28 |
| Lanbide Heziketa | **18** | 17 | - | - | 1 |
| Liburuak eta material osagarriak | **626** | 509 | 16 | - | 101 |

| % bertikalak | Guztira | EAE | NFE | Ipar EH | Beste AE batzuk |
|---|---|---|---|---|---|
| **Unibertsitatekoak ez diren testuak, guztira** | **100,0** | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |
| Haur Hezkuntza | **16,3** | 17,6 | -- | 20,8 | 10,3 |
| Lehen Hezkuntza | **36,4** | 36,3 | -- | 79,2 | 36,1 |
| DBH | **28,2** | 26,4 | -- | -- | 38,6 |
| Batxilergoa | **6,6** | 7,3 | -- | -- | 3,2 |
| Lanbide Heziketa | **0,3** | 0,4 | -- | -- | 0,1 |
| Liburuak eta material osagarriak | **12,1** | 12,0 | 100,0 | -- | 11,6 |

2015ean berriro ere gora egin du sail honetako izenburu bizien kopuruak. Aurreko ekitaldiarekiko % 6,5 egin du gora, eta 2011. urtearekiko, berriz, % 9,9. Sailen arabera, Lehen Hezkuntza, Haur Hezkuntza eta Liburuak eta material osagarriak dira jaitsiera handiena izan dutenak (% 12,7, % 11,9 eta % 17,4, hurrenez hurren) eta Batxilergoa gehien jaitsi dena (-% 11,0).

**32. TAULA.- UNIBERTSITATEKOAK EZ DIREN TESTUEN EUSKARAZKO IZENBURU BIZIAK 2011-2015 BILAKAERA. 2014. URTEAREKIKO ALDAKUNTZA**

| Izenburu biziak | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | Aldakuntza (%) |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira** | **4.694** | **4.639** | **4.530** | **4.844** | **5.160** | **6,5** |
| Haur Hezkuntza | 689 | 719 | 691 | 754 | **844** | 11,9 |
| Lehen Hezkuntza | 1.705 | 1.705 | 1.573 | 1.665 | **1.877** | 12,7 |
| DBH | 1.380 | 1.259 | 1.440 | 1.492 | **1.457** | -2,4 |
| Batxilergoa | 300 | 319 | 319 | 383 | **340** | -11,0 |
| Lanbide Heziketa | 42 | 45 | 20 | 17 | **18** | 0,2 |
| Liburuak eta material osagarriak | 597 | 594 | 487 | 533 | **626** | 17,4 |

| % bertikalak | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | Aldea* |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | |
| Haur Hezkuntza | 14,7 | 15,5 | 15,3 | 15,6 | **16,3** | 0,8 |
| Lehen Hezkuntza | 36,3 | 36,7 | 34,7 | 34,4 | **36,4** | 2,0 |
| DBH | 29,4 | 27,1 | 31,8 | 30,8 | **28,2** | -2,6 |
| Batxilergoa | 6,4 | 6,9 | 7,0 | 7,9 | **6,6** | -1,3 |
| Lanbide Heziketa | 0,9 | 1,0 | 0,4 | 0,4 | **0,3** | 0,0 |
| Liburuak eta material osagarriak | 12,3 | 12,8 | 10,8 | 11,0 | **12,1** | 1,1 |

*Aldea ehunekotan

Fakturazioari dagokionez, Lehen Hezkuntzak (% 50,0) eta DBHk (% 19,9) lortu dituzte kopuru handienak.

**33. TAULA.- UNIBERTSITATEKOAK EZ DIREN TESTUEN EUSKARAZKO FAKTURAZIOA 2015AN**

| Fakturazioa (x1.000) | Guztira | EAE | NFE | Ipar EH | Beste AE batzuk |
|---|---|---|---|---|---|
| **Unibertsitatekoak ez diren testuak, guztira** | **28.782** | **26.486** | **1** | **15** | **2.281** |
| Haur Hezkuntza | **4.469** | 4.166 | -- | 3 | 300 |
| Lehen Hezkuntza | **14.380** | 13.280 | -- | 5 | 1.094 |
| DBH | **5.718** | 5.220 | -- | 7 | 491 |
| Batxilergoa | **1.868** | 1.632 | -- | -- | 237 |
| Lanbide Heziketa | **91** | 91 | -- | -- | -- |
| Liburuak eta material osagarriak | **2.256** | 2.097 | 1 | -- | 158 |

| Fakturazioa (%) | Guztira | EAE | NFE | Ipar EH | Beste AE batzuk |
|---|---|---|---|---|---|
| **(% bertikalak)** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| Haur Hezkuntza | **15,5** | 15,7 | -- | 22,2 | 13,2 |
| Lehen Hezkuntza | **50,0** | 50,1 | -- | 33,3 | 48,0 |
| DBH | **19,9** | 19,7 | -- | 44,4 | 21,5 |
| Batxilergoa | **6,5** | 6,2 | -- | -- | 10,4 |
| Lanbide Heziketa | **0,3** | 0,3 | -- | -- | -- |
| Liburuak eta material osagarriak | **7,8** | 7,9 | 100,0 | -- | 6,9 |

2015ean, Unibertsitatekoak ez diren testuen guztizko fakturazioak % 3,9 gora egin du 2014. urtearekiko, aldiz % 0,9 jaitsi da 2011. urteaz geroztik.

Lehen Hezkuntza da igoera handiena izan duen azpisaila (% 7,9), eta Lanbide Heziketa, berriz, gehien jaitsi dena (-% 7,2).

**34. TAULA.- UNIBERTSITATEKOAK EZ DIREN EUSKARAZKO TESTUEN FAKTURAZIOA. 2011-2015 BILAKAERA. 2014. URTEAREKIKO ALDAKUNTZA**

| Fakturazioa (x1.000) | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | Aldakuntza (%) |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira** | **29.048** | **27.719** | **27.052** | **27.697** | **28.782** | **% 3,9** |
| Haur Hezkuntza | 4.030 | 4.406 | 4.434 | 4.537 | **4.469** | % -1,5 |
| Lehen Hezkuntza | 13.866 | 13.713 | 13.170 | 13.330 | **14.380** | % 7,9 |
| DBH | 6.437 | 5.459 | 5.307 | 5.581 | **5.718** | % 2,5 |
| Batxilergoa | 2.663 | 2.002 | 1.846 | 1.868 | **1.868** | % 0,0 |
| Lanbide Heziketa | 158 | 120 | 105 | 98 | **91** | % -7,2 |
| Liburuak eta material osagarriak | 1.895 | 2.019 | 2.190 | 2.282 | **2.256** | % -1,2 |

| % bertikalak | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | Aldea* |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | |
| Haur Hezkuntza | 13,9 | 15,9 | 16,4 | 16,4 | **15,5** | -0,9 |
| Lehen Hezkuntza | 47,7 | 49,5 | 48,7 | 48,1 | **50,0** | 1,8 |
| DBH | 22,2 | 19,7 | 19,6 | 20,1 | **19,9** | -0,3 |
| Batxilergoa | 9,2 | 7,2 | 6,8 | 6,7 | **6,5** | -0,3 |
| Lanbide Heziketa | 0,5 | 0,4 | 0,4 | 0,4 | **0,3** | 0,0 |
| Liburuak eta material osagarriak | 6,5 | 7,3 | 8,1 | 8,2 | **7,8** | -0,4 |

*Aldea ehunekotan

Ondorengo grafikoetan, unibertsitatekoak ez diren euskarazko testuen fakturazioak azken bost urteetan (2011-2015) izandako bilakaera ikus dezakegu, guztira eta sail guztietan.

Azken 5 urte hauetan pixka bat jaitsi egin da Unibertsitatekoak ez diren testuak sailaren fakturazioa. 2011. urtearekin alderatzen badugu, % 0,9 jaitsi da sail hau.

Unibertsitatekoak ez diren Testuen barnean, jaitsi egin dira DBHko, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako liburuen ehunekoak. Aldiz, Lehen Hezkuntzako eta Haur Hezkuntzako liburuek gora egin dute.

**10. GRAFIKOA.- UNIBERTSITATEKOAK EZ DIREN EUSKARAZKO TESTUEN FAKTURAZIOAREN BILAKAERA. OSOA ETA SAILEN ARABERA (2011-2015)**





















# BESTE DATU BATZUK

Kapitulu honetako datuetan, euskarazko lanak argitara ematen dituzten argitaletxe pribatuek sorturiko enpleguaren kopuru estimatuak aurkeztuko ditugu, eskuragarri ditugun datu-baseetatik abiatuta. Bestalde, egile eskubideen salerosketaren ondorioz argitaletxe horietan izandako ordainketak eta diru sarrerak ere aztertuko ditugu.

## ENPLEGUA

75 enpresa pribatuk argitaratu dute euskaraz. Argitaletxe horiek 251 lanpostu sortu dituzte guztira, eta enpresa bakoitzak 3,3 langile ditu batez beste. Enplegu horren % 77,3 EAEko enpresetan sortzen da, eta haietan, batez beste 4,5 lanpostu daude euskarazko argitalpenetarako.

**35. TAULA. NOMINAPEKO LANGILEEN KOPURUA. ENPRESA PRIBATUAK**

| | Guztira | EAE | NFE | Ipar EH | Beste AE batzuk |
|---|---|---|---|---|---|
| **ENPRESEN KOPURUA** | **75** | 43 | 4 | 6 | 22 |
| **GUZTIRA** | **251** | 194 | 8 | 7 | 42 |
| **BATEZ BESTEKOA** | **3,3** | 4,5 | 2,0 | 1,2 | 1,9 |

## EGILE ESKUBIDEAK

Egile eskubideei dagokienez, euskaraz nahiz beste hizkuntza batzuetan argitaratzen duten EAEko argitaletxe pribatuei buruzko datuak besterik ez ditugu. Horien artean, euskaraz (euskaraz soilik nahiz beste hizkuntza batzuetan) argitaratzen duten argitaletxeak bakarrik kontuan hartuta, beren fakturazioaren % 4,1 ordaindu zuten egile eskubideengatik.

Argitaletxe horien (EAE) euskarazko fakturazioa 34.224.757 eurokoa izan da, eta 1.393.154 euro ordaindu dira egile eskubideengatik.

Hurrengo taulako estimazioak egiteko, argitaletxe mota guztiek eskubideak erosteko ehuneko berdina ordaindu zutela jotzen da: % 4,1.

Eskubideak erosteagatik 1.518.192 euro ordaindu zituztela atera da hortik.

**36. TAULA.- ESKUBIDEAK EROSTEKO EGINDAKO ORDAINKETEN ESTIMAZIOA**

| Eskubideak erosteagatik egindako ordainketak | Guztira | EAE | NFE | Iparralde | Beste AE batzuk |
|---|---|---|---|---|---|
| Egile eskubideengatiko ordainketak | **1.518.192** | 1.393.154 | 2.931 | 6.845 | 115.262 |
| Beste eskubide batzuengatiko ordainketak (itzultzaileenak barne) | **254.099** | 233.171 | 491 | 1.146 | 19.291 |
| Guztira (eurotan) | **1.772.290** | 1.626.325 | 3.421 | 7.991 | 134.553 |
| Fakturazioa (eurotan) | **37.296.489** | 34.224.757 | 72.000 | 168.160 | 2.831.572 |
| ***Fakturazioaren zenbatekoarekiko %*** | **4,1** | 4,1 | 4,1 | 4,1 | 4,1 |

Orain arte, eskubideak erosteagatik egindako ordainketak fakturazioaren % 4,1 hartu duela jo dugu hipotesi gisa. Tartea ireki eta ordainketa horiek fakturazioaren % 4 eta % 5 bitartekoak izan zirela kontuan hartuko bagenu, emaitza 1.491.860 eta 1.648.244 euro bitartekoa izango litzateke.

# ARGITALPEN PUBLIKOA EUSKARAZ

Oro har argitalpen publikoa eta bereziki euskarazkoa aztertzen hasi aurretik, azpimarratu nahi dugu, aurreko edizioetan egin dugun moduan, argitalpen mota horrek ezaugarri berezi batzuk dituela eta, horren ondorioz, nekeza eta zaila dela horren gaineko kalkuluak egitea.

Hauek dira ezaugarri horiek:

- Argitalpena ez da izaten, oro har, eragile editore horien jarduera nagusia.
- Eragileak oso heterogeneoak dira.
- Ez dago argitalpen erregularrik, argitalpenak unean uneko behar berezien araberakoak baitira.
- Nahikoa aldakorra da urte batetik bestera.
- Horrez gainera, argitaratzen diren liburuen ale kopuru handi bat dohainik banatzen da, bai truke moduan, bai liburutegietara edo beste erakunde batzuetara banatzeko. Argitaratutako aleen argitalpena argitaletxe pribatuekin kontratatu daiteke, gainera.

Zailtasun horiek gorabehera, euskarazko argitalpen publikoari buruzko datuak zehazten saiatu gara kontsulta zuzenen, bigarren mailako datuen eta ISBNko datu-basearen bitartez. Aipatu beharra dago, Euskal Herriko Unibertsitateari buruzko informazioa EAEko barne merkataritzaren azterketaren barruan dagoela eta, beraz, horiei buruzko datuak ez ditugula atal honetan azalduko.

Emaitzak honako hauek dira:

- 2015an, **19** erakundek eman zituzten lanak argitara (2014an baino sei gehiago).
- **81 izenburu argitaratu zituzten** (Euskal Herriko Unibertsitatekoak alde batera utzita).
- **49.975 ale argitaraturik.**
- **2.564 izenburu katalogoan.**
- **150.304 euro fakturatu zituzten.**
- **14.706 ale saldu zituzten** (10,2 euro aleko).

Erakunde publikoei dagokienez (EP), aztertutako magnitudeen sailkako banaketak[7] (izenburuak, aleak eta fakturazioa) erakusten digu Administrazioaren argitalpenak gizarte gaiei (zuzenbidea, ekonomia, geografia, ingurumena, administrazio publikoa, etab.) edo gai zientifikoei (teknologia, medikuntza, etab.) buruzkoak izan direla, oro har. Hain zuzen ere, sail horiek ia % 50eko edo % 50etik gorako ehunekoa izan dute ikertutako aldagai guztietan, argitaratutako izenburuetan izan ezik.

**37. TAULA.- ERAKUNDE PUBLIKOEN ARGITALPENEN BALIOEN BANAKETA, SAILEN ARABERA**

| | Argitaratutako izenburuak | Argitaratutako aleak | Izenburu biziak | Fakturazioa | Saldutako aleak |
|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira** | **81** | **49.975** | **2.564** | **150.304** | **14.706** |
| Literatura | 6 | 846 | 219 | 9.312 | 887 |
| Haur eta gazte literatura | 2 | 3.458 | 48 | 1.759 | 320 |
| Unibertsitatekoak ez diren testuak | 9 | 16.839 | 67 | 5.710 | 497 |
| Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak | 34 | 15.062 | 1.785 | 100.555 | 7.981 |
| Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak | 26 | 9.022 | 221 | 22.026 | 2.591 |
| Beste sail batzuk | 4 | 4.748 | 224 | 10.941 | 2.431 |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira (% bertikalak)** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| Literatura | 7,4 | 1,7 | 8,5 | 6,2 | 6,0 |
| Haur eta gazte literatura | 2,5 | 6,9 | 1,9 | 1,2 | 2,2 |
| Unibertsitatekoak ez diren testuak | 11,1 | 33,7 | 2,6 | 3,8 | 3,4 |
| Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak | 42,0 | 30,1 | 69,6 | 66,9 | 54,3 |
| Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak | 32,1 | 18,1 | 8,6 | 14,7 | 17,6 |
| Beste sail batzuk | 4,9 | 9,5 | 8,7 | 7,3 | 16,5 |

Betiere, erakundeen argitalpenean, alde handia izaten da argitaratutako aleen eta saldutako aleen artean. Alde horren arrazoia da Erakunde Publikoek argitaratutako aleetako asko doan banatzen direla.

[7] Egindako inkestetatik lortu da Erakunde Publikoetarako sailen araberako bereizketa, eta erakunde horien argitalpenei buruz dauden datuetatik abiatuta egin da estimazioa neurri batean.

# LABURPENA

**2015ean, euskarazko liburuen salmentagatik 37,45 milioi euro fakturatu dira** (azalean agertzen den salneurriaren arabera, BEZa barne). Horietatik % 91,4 EAEko enpresa pribatuek fakturatu dute; % 0,2, NFEko argitaletxe pribatuek eta % 0,4 Ipar Euskal Herriko enpresa pribatuek. Guztizko kopuruaren % 7,6 fakturatu dute beste autonomia erkidego batzuetako argitaletxe pribatuek. Enpresa publikoek urteko fakturazio osoaren % 0,4 hartzen dute.

Saldutako aleen eta argitaratutako aleen ehunekoak eta fakturazioarenak antzekoak izan dira.

Argitaletxe publikoek katalogoko izenburuetan izan dute garrantzi handiena, guztizkoaren % 15,4, hain zuzen ere. Argitaratutako izenburuetan % 4,7 izan da haietarako lortutako ehunekoa.

**38. TAULA.- LORTUTAKO BALIOEN BANAKETA, ARGITALETXEEN TIPOLOGIAREN ARABERA. BALIO ABSOLUTUAK**

| | Argitaratutako izenburuak | Argitaratutako aleak | Katalogoko izenburuak | Fakturazioa (milaka €-tan) | Saldutako aleak |
|---|---|---|---|---|---|
| EAE | 1.276 | 2.453.250 | 11.922 | 34.225 | 2.353.835 |
| NFE | 19 | 13.000 | 289 | 72 | 5.505 |
| Ipar EH | 29 | 22.800 | 261 | 168 | 10.779 |
| Beste AE batzuk | 330 | 270.983 | 1.663 | 2.832 | 172.868 |
| **Argitaletxe pribatuak, guztira** | **1.654** | **2.760.033** | **14.135** | **37.296** | **2.542.986** |
| **EP** | **81** | **49.975** | **2.564** | **150** | **14.706** |
| **Guztira** | **1.735** | **2.810.008** | **16.699** | **37.447** | **2.557.693** |

Argitaletxe horiek euskaraz argitaratu dituzten 1.735 izenburuei egile-editoreek argitaratu dituzten 44 izenburuak gehitu behar zaizkie. Hortaz, guztira euskarazko 1.778 izenburu argitaratu dira 2015ean (3. taula).

**39. TAULA.- LORTUTAKO BALIOEN BANAKETA, ARGITALETXEEN TIPOLOGIAREN ARABERA. % BERTIKALAK**

| | Argitaratutako izenburuak | Argitaratutako aleak | Katalogoko izenburuak | Fakturazioa (milaka €-tan) | Saldutako aleak |
|---|---|---|---|---|---|
| EAE | 73,5 | 87,3 | 71,4 | 91,4 | 92,0 |
| NFE | 1,1 | 0,5 | 1,7 | 0,2 | 0,2 |
| Ipar EH | 1,7 | 0,8 | 1,6 | 0,4 | 0,4 |
| Beste AE batzuk | 19,0 | 9,6 | 10,0 | 7,6 | 6,8 |
| **Argitaletxe pribatuak, guztira** | **95,3** | **98,2** | **84,6** | **99,6** | **99,4** |
| **EP** | **4,7** | **1,8** | **15,4** | **0,4** | **0,6** |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |

**11. GRAFIKOA.- LORTUTAKO BALIOAK, ARGITALETXEEN TIPOLOGIAREN ARABERA. (% BERTIKALAK)**




Lortutako ratioek honako hau erakusten dute:

- EAEko argitaletxeek batez besteko argitaraldia gainditu dute.
- Katalogoko izenburuek argitaratutako izenburuekiko duten ratioa handiagoa izan da Nafarroako Foru Erkidegoko argitaletxeetan, baita dezente handiagoa ere EPetan.
- Batez besteko salneurria (14,6 euro) txikiagoa izan da NFEn (13,1 euro), eta batik bat EPetan (10,2 euro).
- Argitaletxe pribatuek argitaratutako aleen % 92,2 saldu dituzte, eta EPek, berriz, argitaratuetatik % 29,4.

**40. TAULA.- EUSKARAZKO ARGITALPENAREN RATIO NAGUSIAK, ARGITALETXEEN TIPOLOGIAREN ARABERA.**

| | Batez besteko argitaraldia | Katalogoko izenburuak / argitaratutako izenburuak | Batez besteko salneurria | Saldutako aleak / argitaratutako aleak |
|---|---|---|---|---|
| EAE | **1.923** | 9,3 | 14,5 | 95,9 |
| NFE | **684** | 15,2 | 13,1 | 42,3 |
| Ipar EH | **786** | 8,8 | 15,6 | 47,3 |
| Beste AE batzuk | **821** | 5,1 | 16,4 | 64,0 |
| **Argitaletxe pribatuak, guztira** | **1.669** | 8,5 | 14,7 | 92,2 |
| **EP** | **617** | 31,7 | 10,2 | 29,4 |
| **Guztira** | **1.620** | 9,6 | 14,6 | 91,0 |

**41. TAULA.- EUSKARAZKO LIBURUEN ARGITALPENAREN ETA FAKTURAZIOAREN DATU NAGUSIAK, SAILEN ARABERA. ARGITALETXE PRIBATUAK**

| | Argitaratutako izenburuak | Argitaratutako aleak (x1.000) | Katalogoko izenburuak | Fakturazioa (x1.000 €) |
|---|---|---|---|---|
| **Guztira (balio absolutuak)** | **1.654** | **2.760** | **14.135** | **37.296** |
| Literatura | 221 | 293 | 2.230 | 1.928 |
| *Eleberria* | *143* | 188 | *1.572* | *1.513* |
| *Poesia, antzerkia* | *24* | 19 | *282* | *102* |
| *Beste literatura batzuk* | *54* | 85 | *375* | *313* |
| Haur eta gazte literatura | 421 | 639 | 4.390 | 5.476 |
| Unibertsitatekoak ez diren testuak | 744 | 1.543 | 5.160 | 28.782 |
| *Haur Hezkuntza* | *97* | 236 | *844* | *4.469* |
| *Lehen Hezkuntza* | *325* | 692 | *1.877* | *14.380* |
| *DBH* | *241* | 448 | *1.457* | *5.718* |
| *Batxilergoa* | *18* | 25 | *340* | *1.868* |
| *Lanbide Heziketa* | *1* | 1 | *18* | *91* |
| *Liburuak eta material osagarriak* | *61* | 141 | *626* | *2.256* |
| Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak | 149 | 107 | 1.470 | 324 |
| Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak | 59 | 92 | 435 | 417 |
| Beste sail batzuk | 60 | 86 | 450 | 369 |

| | Argitaratutako izenburuak | Argitaratutako aleak (x1.000) | Katalogoko izenburuak | Fakturazioa (x1.000 €) |
|---|---|---|---|---|
| **Guztira (% bertikalak)** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| Literatura | *13,4* | 10,6 | 15,8 | 5,2 |
| *Eleberria* | *8,7* | 6,8 | *11,1* | *4,1* |
| *Poesia, antzerkia* | *1,5* | 0,7 | *2,0* | *0,3* |
| *Beste literatura batzuk* | *3,3* | 3,1 | *2,7* | *0,8* |
| Haur eta gazte literatura | *25,5* | 23,2 | 31,1 | 14,7 |
| Unibertsitatekoak ez diren testuak | 44,9 | 55,9 | 36,5 | 77,2 |
| *Haur Hezkuntza* | *5,9* | 8,6 | *6,0* | *12,0* |
| *Lehen Hezkuntza* | *19,6* | 25,1 | *13,3* | *38,6* |
| *DBH* | *14,6* | 16,2 | *10,3* | *15,3* |
| *Batxilergoa* | *1,1* | 0,9 | *2,4* | *5,0* |
| *Lanbide Heziketa* | *0,1* | 0,0 | *0,1* | *0,2* |
| *Liburuak eta material osagarriak* | *3,7* | 5,1 | *4,4* | *6,0* |
| Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak | 9,0 | 3,9 | 10,4 | 0,9 |
| Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak | 3,6 | 3,3 | 3,1 | 1,1 |
| Beste sail batzuk | 3,6 | 3,1 | 3,2 | 1,0 |

## SAILEN ARABERAKO BANAKETARI BURUZ AIPATU BEHARREKO ALDERDIAK

Hurrengo tauletan, Espainian* sailen arabera lortutako datu nagusien eta euskarari nahiz gainerako hizkuntzei buruzko datuen (katalana*, galiziera* eta gaztelania*) arteko alderaketa egingo dugu. Bide horretatik, gaztelaniaren jokabidearen eta gainerako hizkuntzen jokabidearen arteko alderaketa egin ahal izango da; izan ere, bigarren horien argitalpen profesionala berriagoa da, eta iragan mendean ia lau hamarraldiko parentesia bizi izan zuten Espainian.

Bada datu bat aldagai guztietan errepikatzen dena: euskaraz, katalanez eta galizieraz Haur eta gazte literatura eta Unibertsitatekoak ez diren testuak sailen ehunekoak handiagoak izan dira aztertutako magnitude guztietan. Testu zientifikoek eta gizarte zientzietakoek eta dibulgaziozkoek ehuneko handiagoak ageri dituzte gaztelaniaz argitaratutako izenburuetan. Aurten ere azpimarragarria izan da galizierako Literaturak izan duen ehunekoa.

**42. TAULA.- EUSKARAZ ARGITARATUTAKO IZENBURUEN ETA KATALANEZ, GALIZIERAZ, GAZTELANIAZ ETA ESPAINIAN ARGITARATUTAKO IZENBURUEN DATUEN ARTEKO KONPARAZIOA, SAILEN ARABERA (ARGITALETXE PRIBATUAK)[8]**

| | Espainiako estatuan, guztira | Euskara | Katalana | Galiziera | Gaztelania eta beste batzuk |
|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira (% bertikalak)** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| Literatura | 17,9 | 13,4 | 18,1 | 30,8 | 17,8 |
| Haur eta gazte literatura | 15,8 | 25,4 | 23,8 | 40,8 | 13,7 |
| Unibertsitatekoak ez diren testuak | 22,6 | 44,9 | 31,1 | 23,0 | 20,8 |
| Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak | 25,0 | 9,0 | 12,9 | 0,8 | 27,8 |
| Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak | 12,9 | 3,6 | 12,6 | 1,7 | 13,3 |
| Beste sail batzuk | 5,8 | 3,7 | 1,6 | 2,8 | 6,6 |

8

[8] Katalanez, galizieraz eta gaztelaniaz argitaratutako izenburuen datuak Barne Merkataritzaren 2015ko Txostenrtik hartuak dira.

Katalanez argitaratutako izenburuen datuetan aintzat hartzen dira nola Katalunian hala Valentziako Erkidegoan eta Balear Uharteetan katalanez argitaratutako izenburuak.

Euskarazko izenburuen datuak, berriz, txosten honetan ematen direnak dira.

* Elkartutako argitaletxeek emandako datuak

**43. TAULA.- EUSKARAZ ARGITARATUTAKO ALEEN ETA KATALANEZ, GALIZIERAZ, GAZTELANIAZ ETA ESPAINIAN ARGITARATUTAKO ALEEN DATUEN ARTEKO KONPARAZIOA, SAILEN ARABERA (ARGITALETXE PRIBATUAK)**

| | Espainiako estatuan, guztira | Euskara | Katalana | Galiziera | Gaztelania eta beste batzuk |
|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira (%bertikalak)** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| Literatura | 17,9 | 10,6 | 19,1 | 17,2 | 18,0 |
| Haur eta gazte literatura | 22,8 | 23,2 | 24,8 | 30,6 | 22,6 |
| Unibertsitatekoak ez diren testuak | 22,8 | 55,9 | 37,3 | 45,5 | 20,7 |
| Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak | 15,4 | 3,9 | 8,5 | 0,5 | 16,3 |
| Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak | 12,4 | 3,3 | 8,1 | 2,9 | 13,0 |
| Beste sail batzuk | 8,7 | 3,1 | 2,2 | 3,4 | 9,4 |

Izenburu biziei dagokienez, ikusi da katalogoko Literaturaren ehunekoak, katalanez eta galizieraz, gainditu egiten duela batez besteko globala, eta Haur eta gazte literaturak batez bestekoa gainditu duela euskaraz, galizieraz eta katalanez.

**44. TAULA.- EUSKARAZKO ARGITALPEN BIZIEN ETA KATALANEZ, GALIZIERAZ, GAZTELANIAZ ETA ESPAINIAN ARGITARATUTAKOEN DATUEN ARTEKO KONPARAZIOA, SAILEN ARABERA (ARGITALETXE PRIBATUAK)**

| | Espainiako estatuan, guztira | Euskara | Katalana | Galiziera | Gaztelania eta beste batzuk |
|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira (%bertikalak)** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| Literatura | 21,5 | 15,8 | 25,9 | 33,8 | 20,3 |
| Haur eta gazte literatura | 12,5 | 31,1 | 22,1 | 31,0 | 9,8 |
| Unibertsitatekoak ez diren testuak | 14,2 | 36,5 | 17,5 | 24,7 | 12,7 |
| Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak | 33,0 | 10,4 | 13,1 | 1,7 | 38,3 |
| Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak | 13,3 | 3,1 | 15,1 | 6,7 | 13,4 |
| Beste sail batzuk | 5,5 | 3,2 | 6,4 | 2,1 | 5,5 |

**45. TAULA.- EUSKARAZKO FAKTURAZIOAREN ETA KATALANEZ, GALIZIERAZ, GAZTELANIAZ ETA ESPAINIAN LORTUTAKOAREN DATUEN ARTEKO KONPARAZIOA, SAILEN ARABERA (ARGITALETXE PRIBATUAK)**

| | Espainiako estatuan, guztira | Euskara | Katalana | Galiziera | Gaztelania eta beste batzuk |
|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira (%bertikalak)** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| Literatura | 19,5 | 5,2 | 21,2 | 12,6 | 19,7 |
| Haur eta gazte literatura | 11,5 | 14,7 | 17,5 | 22,5 | 10,6 |
| Unibertsitatekoak ez diren testuak | 36,8 | 77,2 | 46,9 | 56,1 | 34,7 |
| Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak | 14,7 | 0,9 | 4,7 | 1,1 | 16,3 |
| Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak | 11,9 | 1,1 | 3,8 | 4,0 | 13,1 |
| Beste sail batzuk | 5,6 | 1,0 | 5,9 | 3,6 | 5,6 |

Haur eta gazte literatura eta Unibertsitatekoak ez diren testuak sailetako ehunekoak batuta, ikusten da gaztelaniazkoek fakturazioaren % 45,3 hartzen dutela eta argitaratutako aleen % 43,3; katalanezko argitalpenetan, fakturazioaren % 64,3 izan da; galizierazkoetan, % 78,6 eta euskarazkoetan, % 91,9.

**46. TAULA.- HAUR ETA GAZTE LITERATURA ETA UNIBERTSITATEKOAK EZ DIREN TESTUAK SAILEN EHUNEKOAK, HAINBAT HIZKUNTZATAN, AZTERTUTAKO MAGNITUDEEN ARABERA (ARGITALETXE PRIBATUAK)**

| | Euskara | Katalana | Galiziera | Gaztelania eta beste batzuk |
|---|---|---|---|---|
| Argitaratutako izenburuak | 70,3 | 54,9 | 63,8 | 34,5 |
| Argitaratutako aleak | 79,1 | 62,1 | 76,1 | 43,3 |
| Fakturazioa | 91,9 | 64,3 | 78,6 | 45,3 |

**12. GRAFIKOA.- HAUR ETA GAZTE LITERATURA ETA UNIBERTSITATEKOAK EZ DIREN TESTUAK SAILEN ARGITALPENA ETA FAKTURAZIOA, AZTERTUTAKO HIZKUNTZETAN (%-TAN)**



## ZEHAZTAPEN METODOLOGIKOAK

Txosten honetako datuak euskarazko argitalpenak plazaratzen dituzten enpresetan (publiko zein pribatuetan) egindako laginketatik lortu ditugu, horien kokaleku geografikoa kontuan hartu gabe.

Informazioa zuzenean argitaletxeetatik lortu ez dugun kasuetan, bigarren mailako iturrietara jo dugu, informazio bila; era berean, galdetegiari erantzun ez dioten argitaletxeen datuen estimazioa egin dugu.

Azterketaren emaitzak garrantzitsuak dira, aurreko txostenetan lortutako datuekin alderatzeko aukera ematen digutelako. Dagoeneko badugu 11 urteko sail historikoa, eta 2011z geroztiko joerek indarrean jarraitu dute; horien artetik nabarmentzekoa da euskarazko argitalpenak Haur eta gazte literaturarekiko eta Unibertsitatekoak ez diren testuekiko duen mendekotasun handia.

Baliteke ikerketa honetan adierazitako datu jakinen bat harrigarria izatea, baina, esan bezala, aparteko egoeren edo galdetegia betetzean gertatutako akatsen ondoriozkoa izan daiteke. Azpimarratu beharra dago ikerketa hau ez dela zurruna; aitzitik, euskarazko argitalpenaren joera nagusien adierazgarria da.